

# Zeruko ARGIA



IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA

## IÑAXIO RETEGI

### Lau aldiz txapeldun

# Tapiari eskutatik aldegin dio txoriak

Gauza guztiak iragaten dira. Igaro da Iñaxio Retegi eta Fernando Tapiaren pelota jokoa ere. Opa genion, ba, Gipuzkoarrok aurtengo txapela Fernandori, ez Retegiri opa ez diogulako, aurtun bezalako egokierarik, agian, gehiago izango ez duelako azkoitiarrak baizik.

Iruñera jo dugu gaur goizean. Asteazkena da. Hiru egun besterik ez da txapelketa jokatu zela. «Anaitasuna» tabernan hizketatzekotan gara txapeldunarekin.

Eguraldi zoragarria ibilirako, etxe barrurako baino hobe. Nafarroako lurak ez daude bilutsik, dotore jantziak daude. Gipuzkoan ez bezalako pagadi apainak ikusi ditugu.

Hamarrak eta hamarretan, jarritako orduan, iritxi gara «Anaitasunera». Beste gizon batekin hizketan dago Iñaxio Retegi, baina berehalaxe ohartu da harekin hitzegitera hurbildu garela. «Zuek al zarete nerekin hitzegitera zatozenak?».

Ezagutzen du Zeruko Argia. Hitz-jario atsegina du Iñaxiok. Ez dauka ezeren kupidarik bere kontuak esateko.

—Lasaitu al zara Iñaxio?

—Ba, oraintxe ari naiz zertxobait lasaitzen. Jateko ere gogorik gabe egon naiz orain arte. Edan, bai, arrapatu dudana guztia. Ez naiz sekulan horren nerbioa ibili. Aurreko egunetan ere ez nengoen nere onetan. Baina txapelketa egunean zeharokoa nengoen. Ero bat bezala. Ez nuen ikusi ere egiten. Arrunt lotua nengoen. Ez neukan indarrik. Galdurik ibili nintzen. Ez aurretik eta ez ondoren ez dut lorik ere ondo egin. Ez nuen izerdirik ere bota partidu guztian. Arratsaldean bota nituen partidukoan ordez. Hotzikara bezala sumatzen nuen gorputzean.

—Zeure jokoa egin zenuela usate al duzu, Iñaxio? Pozik geratu al zinan?

—Ezta pentsatu ere. Oso gaizki egon nintzen. Okerrago egoterik ez dago. Ni beste joko bat egitekoan joan nintzen. Ez nion Fernandori bere jokoa egiten utzi nahi. Baina non nebilen arrastorik gabe jardun nintzen. Fernandok bai, egin zuen bere jokoa. Oso ondo jardun zen ia azkenera arte. Erraz ateraz zitekeen txapeldun, baina txoriak eskutatik aldegin zion.

—Ba al duzu berriro Fernandorekin jokatzeko asmorik?

—Bai. Txapeldun geratzeak poza ematen du. Alde hortatik pozik nago. Baina ez egin nuen jokoz. Patxadan jokatu nahi nioke senda-

tzen denean. Uda aldera jokatuko dugula uste dut.

—Ez al zenduen bolea jotzeko mania gehiegi eduki?

—Bai. Hori da nere jokoetako bat. Baina egun hartan ez nion behar bezalako indarrik ematen. Hartu ere egin nituen hartu beharrekoak ez zirenak. Baina hori guztia nere onetan ez nengoelako zen. Itorik jardun nintzen, itsumustuan. Ez nion inori ezer entzuten.

—Dirua gaintik, alde edukitzeak ez du, ba, mesede haundirik egingo?

—Ez horixe. Errukia ematen dizu norbaitek diru-mordoxka bat gal dezakeela pentsatzeak. Estuaz egin du. Erantzunkizun haundia sentitzen duzu. Jendeak nahi duelako jokatzeko du, baina halaz guztiz ere ez du bat ere mesederik egiten.

—Zer diozu Fernando Tapiari?

—Fernando pelotari ona eta lagun hobe duzu. Pelotan bezain gozoa duzu lagunarterako ere. Sake bat bakarrik ere ez zidan aterara «ba, Iñaxio» esan gabe. Partiduen azken alde alde batera utzirik, Fernandok oso ondo jokatu zuen. Tanto batean bakarrik hutsegin zuen nere uestez, dejada hartan. Nahi zuena egin zuen Fernandok. Ederki erasten zion ezkerparetari bolea har ez nezan. Sakea ere ondo ateratzen zuen erdi



aldera. Nerretzat tokirik txarrene-ra. Nik nahiago nun oso ezkerre- edo oso eskuinera ateratzea.

—Ez da galdera egokia, baina, atrebentziz, pelotatik bakarrik bizi ai zara?

—Ez. Baditut lan onak. Representante ibiltzen naiz. Dirua ondo ematen du.

—Bizi al diteke pelotatik bakarrik?

—Noski. Ona izanez gero behintzat. Lehengo mailakoak bai. Osasunak eta eskuak laguntzen badiole partidua asko joka dezake eta orduan dirua egin ditek.

—Noiz hasi zinan pelotan jokatzeko?

## NON ZER

- «LEGE ZAHARRA» ETA NAFARROAKO «FUEROAK» ETA «FUEHO BERRIA» Trintxerpe ... 3 garrenean
- MUNDUAN ZEHAR Elustondo ... 5 garrenean
- BERTSOLARIEN DOINUETAKO BAT Garbizu ... 7 garrenean
- JACQUES MARITAIN «XAHARTUXEA» ITZALI DA Amunsa ... 9 garrenean
- ATAUNGO JAIK ... 12 garrenean
- BEASAINGO JAIK ... 13-14-15 garrenetan

eta erdi nituenen hil zen nere aita, haizkoraz belauna ebakirik. Handik laister sortu zen penizilina.

—Eta bai al dakite zure haurrek euskeraz?

—Oso ondo. Guk beti euskeraz hitzegiten diegu etxean. Gero ere badute erderaz ikasteko beta. Erdera ikasiko dute. Nik euskera ikastea nahi nuke eta hortan saiatzen naiz.

—Barka, baina zer diozu «atxikiaz»?

—Hara, ez nuke berriro ezta baidarik sortzerik nahi. Gure asmoa ez zen lagunen aurka egitea izan. Gure asmoa gazteak joera horrekin ez kutsatzea zen. Gu pelotariok horrengatik ondo konpontzen gara. Hor gauzak nahastu egin zituzten nerekin. Baina nahiago dut hortaz ez mintzatu.

—Bai al dago pelotari onik gazteen artean?

—Oso onak badatez. Baina ibili egin behar da. Asko dira gaxtetan onak direnak baina gero pot egiten dute.

—Ondo prestatua atera al zinan txapelketara?

—Ez badirudi ere, hala atera nintzen. Nik ondo zaindua neukan Fernando. Txapelketaren azkeneko partidua guztiak ikusi dizkiot. Ondo neurtua neukan. Banekien nondik erren egiten zuen. Baina okerrago ez nintekeen egon. Ez nintzen nere buruaren jabe.

—Eskubia ala ezkerre zara?

—Pelotan bakarrik naiz ezkerre. Beste gauza guztietan eskubia naiz. Txikitari autsi egin nuen. Sendagileak Jainkoagatik pelotan ez ibiltzeko agindu zidan, baina halare ez nintzen gelditzen.

—oOo—

«Gizon atsegina eta jatorra duk» pentsatuz eta esanaz aldendu naiz Iñaxiorengandik eta Iruñetik. Oraindik ere ez dela behar bezala lasaitu iruditu zait. Zutik jardun gara denbora guztian. Ez dauka exereitzeko ere patxadarik. Zortziren bat egun atsedena hartu eta berriro pelotari ekiteko asmotan dago. Zorionak Iñaxio!

«Urte askoan, txapela kaskoan!»

ERRIALDE

# Nere Bordatxotik

Aspalditxoan Bizkaiko lurrik ez gendue'a zapaldu, ta Abadiño aldera jo genduen igandean. Desapioko neurketa latz bat zegon bizkaitar biren artean, proban.

Ezer baino len auxe esan nai genduke; oraindik geure demboran ikusi degun probalekurik bikaiñien eta ederrena Abadiño'n ikusi degula.

Eztu parerik Euskalerrian.

—oOo—

Jendea erruz inguratu zan, guk uste bezelaxe.

Proba ere oso ona izan zan. Batek galdu bear zuen, eta Ermua'ko "Ureta" izan zan galzaillea.

Idipare ona berea; piñak, joztailleak, salatua.

Are ta obxa berriz Berriatu'ko "Burgo'ren" parez. Bat ona ta bestea obxa. Beste okerrik ezizan izan ezertxo.

—oOo—

"Eun irurogeitamar", dirua, jokutzen asi baino minutu batzuk aurreago.

Bi milia kilo pixatzen ditu Abadiño'ko demarriak. Arri-gaiñean berreun da bat kiloko karga artu zuten "Burgo'ren" idiak.

Iraca'ko "Gorria" zan aurre-itzaia; "Burgo'ren" suia atzetik bultzalari. Oso ondo artu zuten alkar.

Buruz eta talentuz ibili ziran, ganadurik gelegi beartu gabe.

"Leon-Castillo" galdu zuelako, "Burgo'ren" pareari tokatu zitzaion aurretik jokatzea.

—oOo—

Ogeitamar minutuko denboran marka au ezarri zuten "Burgo'ren" idiak.

Ogeitamalau plaza, bi metro ta larogeitamasei zentimetro.

Etzegon lantoki xamurra, etzegen plaza errexa. Luzatu egin bear gegotik, nola idiak ala gizonak, lanik azalduko bazan.

Gaztain kolore beltzekoa, idi ezkerre; argixeagoa, idi eskubia.

Azken ona emen zuten, itzaiak buruz ibili ziralako, ta kalidadez onak diralako.

—oOo—

"Ureta'ren" txanda.

Idijabea aurre-itzaia; "Idurre" bultzalari.

Piñak arriagoak "Burgo'ren" idiak baino. Au dala-ta, larogeitamairu kilo bakarrik jarri zitzaizkien arri-gaiñean.

Asiera ikusgarria. Ikusgarria, aukeran.

Lanean amabost minutu zeramazkiten garaian (erdi-lanetan), plaza ta erdi geiago egiñak zeuden "Burgo'ren" idiak baino.

Beste amabost minutu palta ziran ordea. Nolako azkena emango zuten ikusi bear. Or zegon gorabera.

—oOo—

Ogeitabatgarren plaza beteterakoan geldiene txiki bat

egin zuten. Señale txarra, esan genduen geure kolkorako.

Ogeitalaugarren plazan, bigarren geldialdia. Geroxeago, probalekutik kanpora atera zuten arria: egalera, aldamenera.

"Au jcan dek", asi zan esaten jendea.

Lastima —zieten— alako asiera ikusgarria izanik.

Leuntxeago, astiroxeago artu balituzte lenengotik, eztago du darik zerbait geiago egingo zutela.

Baiña... gaiñetik juzkatzea erreza izaten da.

Irabazi egin nai mundu guztirik, eta irabaziko bazan lo arterik ez; jo egin bear gogotik.

—oOo—

Marka aundia zeukan "Burgo'k" egiña.

Poliki-poliki, minutuak aurrera zihoazen, denborak betetzen ari ziran. Bolaratxo batean "Idurre'k" (zerbait nai-ta), geitxo zigertu zituen idiak. Jendea etziztaion au gustatu. Txistu jo zieten.

Bereala aldatu zuen jokabidea. Etzan bi aldiz pekatuan jausi.

Ogeitamar minutu bete ziranean, au izan zan "Ureta'ren" marka.

Ogeitamar plaza, sei metro ta zortzi zentimetro.

Beste proba batean ere izango da igandean ainbat aitzeki.

Bein da berrire diogu: idipare trebe ta bulartsuak biak, eta oso dema ona Abadiño'n ikusi genduen.

—oOo—

Gipuzkoar asko agurtu genduen. Ordu berean Aia'ko sarriketa gertatu espalitz, jenderik etzan kabituko Abadiño'n, zein da plaza aundi ta ikusgarria dan.

Lazpita, abadiñotar bildots-erretzalle pamatua antxe zan. Nola ez! Aspaldiko urtetako adiskidea degu, ta ark eman zizkigun erriko berriak.

Probaleku zoragarri ura ez omen zailo xentimorik kosta Aiuntamentuari. Lurra erriarena zan nunbait, eta kontratista batek erosi etxe-bizitzak egiteko.

Ta, dalako kontratistak, probalekua utsean (debalde) egin eta erriari eman, lurraren truke.

—oOo—

Tallerrak emen, tallerrak an. Industria gogor ari da indartzen alde artan ere. Oraindik ugalduko dana gaiñera. Lekua baitago, ta ori da bearrezkoa ezer egingo bada.

Ta, dalako kontratistak, probalekua utsean (debalde) egin eta erriari eman, lurraren truke.

—oOo—

Ta, dalako kontratistak, probalekua utsean (debalde) egin eta erriari eman, lurraren truke.

Ta, dalako kontratistak, probalekua utsean (debalde) egin eta erriari eman, lurraren truke.

Ta, dalako kontratistak, probalekua utsean (debalde) egin eta erriari eman, lurraren truke.

Ta, dalako kontratistak, probalekua utsean (debalde) egin eta erriari eman, lurraren truke.

Ta, dalako kontratistak, probalekua utsean (debalde) egin eta erriari eman, lurraren truke.

Ta, dalako kontratistak, probalekua utsean (debalde) egin eta erriari eman, lurraren truke.

Ta, dalako kontratistak, probalekua utsean (debalde) egin eta erriari eman, lurraren truke.

Ta, dalako kontratistak, probalekua utsean (debalde) egin eta erriari eman, lurraren truke.

Ta, dalako kontratistak, probalekua utsean (debalde) egin eta erriari eman, lurraren truke.

Ta, dalako kontratistak, probalekua utsean (debalde) egin eta erriari eman, lurraren truke.

Ta, dalako kontratistak, probalekua utsean (debalde) egin eta erriari eman, lurraren truke.

Ta, dalako kontratistak, probalekua utsean (debalde) egin eta erriari eman, lurraren truke.

Ta, dalako kontratistak, probalekua utsean (debalde) egin eta erriari eman, lurraren truke.

Ta, dalako kontratistak, probalekua utsean (debalde) egin eta erriari eman, lurraren truke.

Ta, dalako kontratistak, probalekua utsean (debalde) egin eta erriari eman, lurraren truke.

Ta, dalako kontratistak, probalekua utsean (debalde) egin eta erriari eman, lurraren truke.

Ta, dalako kontratistak, probalekua utsean (debalde) egin eta erriari eman, lurraren truke.

Ta, dalako kontratistak, probalekua utsean (debalde) egin eta erriari eman, lurraren truke.



YOGUR

# GURELESA


GOGOZKOENA





## Donosti - Aurrerki - Kutxa

# SARI-ZOZKETA



# ETXE BIZITZA

\* diru sartze-epa: garagarrilla'ren 7 arte


edozein libretetan sartzen diran milia pezeta berri-bakoltzeko zenbaki txartela izango dezu eta libretan dauz-kazun 5 milia pezetakorik alia zenbaki dagozkizu gaiñera

# GIPUZKU'KO LANTEGIAK AURRERA ATERATZEN LAGUNDU

Gure eginkizunetan audienetako bat, Gipuzku'ko lantegiak aurrera ateratzeko laguntza ematea da. Gure diru laguntzakin, Gipuzkoan lantegi asko zabaldu eta indartu egiten dira.

Diru laguntza au era berean, janari gai, etxegintza, burni, mikromekanika, argi indar eta elektronika lantegietara banatzen da... eta beste edozer eratakoentzat ere bai.

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA



“Lege Zaharra” eta nafarroako “Fuegoak” eta “Fuego Berria”

**EGIAREN BILA**

Zine arrigarria ari dira botatzen Europako zenbait lekutan. Munduko Erririk indartsunetako buruzagiaren itzaldia agertzen dira berton. Nixon-ek aldi desberdinetan egindako itzaldiak.

Bildurra ematen duen otz-ikaraz artzen du ikuslea oihalean azaltzen den basatikeriak eta agintekeriak. Edozertara jarria dago Amerikako Erriari honelako saldukeria egiteko eta honelako ziria sartzeko prest dagoen gizona. Hau garbi salatzen du Watergate-ko zerrikeriak. Hor erabili diren bide zikinak larri bizian jarri dute auzia.

Orainoz ez dirudi Lehendakaria bera eskuak zikindurik dagoenik. Iork ez du Nixon-ek Lehendakaritza utzi dezan eskatuko; behenik Spiro Agnew-en nortasun eta izenagatik eta bigarren amerikanoek erakundeari dioten itzalagatik.

Baina arrastoean sartu nahi dute Nixon. Ez dute “Etxe Zuria”k munduaren aurrean duen izena zikindu nahi. Baina latza da Watergate arazoa.

Hasiera batean urrutizkinezko elkarrizketak artu zituzten Nixon-en lagunek, demokrata aundien elkarrizketak hain zuzen ere. Zer ez ote zuten egin Nixon-ek agintea eskuratu zezan! Honela bakarrik irauin bait zezaketen berauek ere agintean.

Zabalkunde aundiegia ez duen “Washington Post” egunkariak nabarmen arazi zuten auteskunduetako joko zikina. Ez zen aurrenetik jendea gehiegi aztoratu.

Baina “Washington Post”eko zuzendariak egia jakiteari eta esateari ekin zion kupidarik gabe. Bi idazle gaztek hartu zuten bero beren gain lan hau. Ez zituen atzerazi “Etxe Zuria”tik zetozkien mehatxu eta amenazoak. Aurrera jarraitu zuten. Laister lehortu zen izkutuian zegoena eztanda eginik.

Hamabost urte da Nixon-en lagunek gangsterismoko eta ustelkeriazko erak eta bideak erabiltzen dituztela. Hau gaur zalantzen izpirik gabeko gertaera da.

Amerikako jendea gerratearen alde zegoela adierazi zuten Erriak emandako iritzia alderantziz agertuz.

John Kennedy, Daniel Ellsbers eta honelakoen agiriak sendagilei diruz erosi dizkiote.

Gezurrezko diplomazia-gelak eta gizonak erabili dituzte.

Republikanoen alderdiari laguntzen zion industri bati mesede egiteagatik bi aldi zutu zuten Chile-ko Enbajada.

Gizon baten edo konzientziarik gabeko bere akolito batzuen mende zegoela dirudi Amerikako demokraziak. Baina zoriez badago kontuak eskatzeko bidea ere. BATZARRA, ZUZENA, eta MINTZABIDEAK. Dagokien lana egiten ari dira. Hauek behar izen dute Lehendakari Nixon jatorrago jokatzera, laguntzaileak aldatzera eta beste politika joko bat egitera.

Egunkariak garbitu dute joko zikin hau, beren nortasun eta askatasunagatik, beren trebetasun eta ausardiagatik, beren egia zaletasunagatik.

Jakina, irakurleek eusten diote honelako egunkari zuzenei.

Urrutiko ispilu hontan galbahetu beharko genituzke gure egunkari, astekari eta aldizkarien jokabideak. Kritikarik onartzen ez duen gizartea usteldua dago. Eta kritikarik onartzen ez den lekutako aldizkariak zipokerietan eta txikikerietan erortzeko arriskuan egon ohi dira.

Dena den besterik ez dezakeguz gero gure arteko aldizkarien jokabidea aztertu beharko genuke.

Egiaren zerbitzuan ote dauzkagu? Ez ote dira zakur amorratuaren antzera ozkaka ari? Ez ote dute bere burua ezin ziritu duena gehiegi zirikatzen eta zikitzen? Ez ote dute irudimenean asmatutakoa egia bezala salatzen? Ikaragarria da gure aldizkariak ari duten jarduna eta erretolika! Nonbait salatu behar genituzkeen bidegabekeriak isildu beharrak, laguna eztenkatzera bultzatzen gaitu!

Erantzun ikaragarria dugu idazleok. Etikaren zantzurik gabeko idazle gehitxo ote gauden pentsatzen dugu. Jendearen iritzia zeharo okertu eta lausotzen dutela uste dugu idazlan askok. Herriaren iritzia esnatzeko, zuzentzeko, argitzeke eta azaltzeko gaudela uste dugu idazleok. Ez Erria itsutzeko, nahasteko, okertzeko eta nazkatzeko.

Badugu nahiko azterketa gai bat ere konzientziarik badugu.

1. Joan dan martxoko zortzian Estaduko Boletín edo Kazeta ofizial delakoan, Nafarroako «Fuego Berria» lege-indarrez argitaratzen hasi ziren. Egun batzuk lehenago estaduko buruzagiak emandako dekretu batez hartua bait zuen lege indar hori.

Geroztik bi hilabete igaro da eta, dagoeneko has ginteke bilduma berri honi zer arrera egin zaion aztertzen. Batzuek —batez ere abogadua kutsukoek— begi onez ikusi dute, lana erraztu egin die eta. Ez dago esan beharrik ofizialtasunez jantzitakoek, beti bezala, sekulako bedeinkazioak bota dizkiotela. Zenbaitek lege-indarra erasteke moduan edo bildurra beraren oinarritan edo batez ere lege zahar biltze hontan eragozpenak ikusten dituzte. Erromantikoren batek penaz hartu du. Nafarroako euskal aldizkari batek —gero esanen dut zeinek— bere biziko nahaspila eta zentzu gutxi laudorio bat eskaini digu. Kaleko jendeak ordea, jende arruntak, ez dio garrantzirik eman. Eta nere ustez, nahiz abogadua izan, kaleko jendeak asmatu egin du... gehienetan bezala.

—oOo—

2. «Fuego berria» Nafarroako «Derecho civil» edo nahi bada «ius civile» delakoaren bilduma berri bat da. Nafarroan bezala, tankera hontako bildumak eginak izan dira 1946az geroztik (Dec. 23.V.47) eta Nafarroari dagokionez (D. 10.II.48) Bizkaia, Araba, Catalunya, Baleares, Galicia eta Aragonen. Nafarroako bilduma egin duten lege-gizonak ordea Diputazioe formalak berezi zituen, ez estadiak, bestetan bezala. Eta gainera esan behar da lehenbait lehen Nafarroako lege edo fuego bildumak duela denetan nortasunik handiena. Hona hemen zergatik:

a) Ez da besteek bezala Espainiako Kodigoaren apendiz edo osagarri soila; baizik alderantziz, Kodigoaren tokian dago.

b) Ohiturak legeak baino indar handiago du, legearen aurkakoa denean alegia (L. 2.º «mos adversus legem»).

d) Honela ba, lege edo eskubide-iturri lehena ohitura da. Honen hutsunean bilduma hontako legeak erabiliko dira. Hauen hutsunean berriz, lehengo lege zaharrak, urrena Erromako Deretxo eta azkenik Espainiako Kodigoa.

e) Lege hauk gehienak «dispositiboak» dira, hau da, elkarren arteko erabakia legea baino bizkorragoa da (L. 6 «paramiento fuero viente»), eta abar.

«Fuego berria» deitu duten bilduma hau (izena bera ere eztabaida ditek) lau liburuz osatzen da. Sarrerakoak, Kodigo gehienetan, zati orokor edo jeneralak izaten dena dakar. Lehengoak pertsona eta familia egituratzen ditu. Bigarrenak donazioak eta susioak, hau da, ondasunen eskualdatzeak. Hirugarrenak berriz propietate eskubidea eta obligazioak. Behar bada beste batean zabalduko naiz gai bakoitz hauei buruz.

Orainoan beste ikuspegi bat ematen saiatu nahi nuke eta zera da, deretxoak (legeak) oso-osoan harturik bitan zatitu ohi dela: publiko edo elkartearrikiko eta pribatu edo pertsona bakarrarekiko. Gai batzutan oso bereizkuntza garbia ez izan arren, gehienetan argitasun handia dakargu.

Ri zati hautan ordea nublukoak askoz ere garrantzi gehiago du; nero eta gehiago gainera. Zenbat eta elkarte edo estadu aurreratuagoa edo sozializatuagoa, orduan eta ahegiago; administratibismoaren bitartez hain zuzen.

Bakarrarekiko legetan, deretxo pribatuetan alegia, bi zati berez gertatzen batez ere: merkantil eta zibil direlakoak.

Zibil delako hontan ordea (merkantilean ere bai) zati bat, Kodigo deitzen diren legetan daqo. Baina beste zati bat, gero eta handiagoa eta batez ere garrantziaren, beste lege berezi eta berrietan. Espainian esate baterako maiztergoari dagokion gutzia, hirigintzako, lanari buruzkoa eta abar.

Nafarroako «Fuego berria» gutxi gora behera Kodigo baten tokian ifini beharko genuke; Kodigo Zibil batenean alegia.

Orduan, zintzoki aitortu beharra dago gure lege zaharrek deretxoaren begiramendu orokor batean

gero eta toki gutxiago eta heretuegoa dutela. Hain zuzen utzikondo tokia.

—oOo—

3. Ezin zitekean bestela gerta bizi garen egoeran. 1513garren urtean Fernando Katolikoak Nafarroa menderatu zuenean, ez zion orduko erreinu zen hau Gaztelari edo Aragoni erantsi. Alderantziz baizik, makaveloki (barka anakronismoa) erutatuko korte batzuek bi urte geroago Nafarroako errege ere ezarri zuten. Eta nahiz eta gero eta askatasun gutxiagoz, Nafarroako korteek biltzen jarraitu egin zuten 1828ko urtera arte. Eta horralte hortaz geroztik —1828!— gure legeak ezin berritu, moldatu, aldatu egin izan dira... ohitura bider ez bada.

Lege egiteko indarra bera berriz lehen karlista guduz ondoren kendu zitzaigun, 1840garren urtean («ley fraccionada»). Urte hontan, Nafarroak erreinu izateaz utzi zuen, probintzia bihurtzeko.

Bestalde ordea, joan den mendeko hasieran, Napoleonen gudariak, iraultza ideiekin batera Kodigo surria sartu zuten Espainian Pirineoetatik barrena. Eta mugimendua honek sortu zituen, lehendabizikotz, Espainian bizi ziren deretxo zibilen arteko borroka eta istiluak; Kodigo zaleek Kodigo bat bakar nahi bait zuten estadu gutxitako. Saiera asko egin zen, Garcia-Goyenarena garrantzitsuenak delarik, baina fuego zuten alderdiek beti Castillaren aurka ateratzen ziren eta azkenean aterapide eklektiko batetara iritzi zen: alde batek Codigo Civil delako honen zati batzuek estadu osoan dute lege indarra, adibidez lehen tituloko nazio arteko deretxoak (orain aldatu berria denak). Beste aldetik berriz fuego duten alderdiek osagarriak egin zitioten Kodigo honi.

—oOo—

4. «Fuego» hitza ordea, era askotara erabili ohi da. Orain arte artikulu hontan deretxo pribatu edo bakarrarekikoan duen zentzuan erabili dugu. Baina saia gaitzen bereizten.

Historian zehar «fuegoak» errege batek bere eskutan erori zen edo zegoen hiri edo alderdi bati ematen zion lege-bilduma osoa zen; nola lege publikoak hala pribatuak. Hau batez ere errekonkistako garaietan gertatzen zen: Jacako fuegoa, Tudelako fuegoa eta abar. Ondorioa berez hiri edo alderdi hortakoa zen edozein gisasemek esan zezakean: «Nik Jacako fuegoa dut». Gaur egun «Dinamarca nazionalitate du» esaten den zentzu berdinean.

Azkeneko horren antzera erabiltzen da gaur ere «procesal» delakoaren fuego hitza; holako edo halako epaitegiari dagokiola epaiketara adierazi bidenabar, alegia.

Baina ordea, baina ordea... «Nafarroako fuegoak» (lehen Gipuzkoak eta Bizkaiak zituztenen antzera) ez dira deretxo pribatu, baizik publiko. Ez dagozkio bertazberta bakarraren behar edo ekinztari, elkarte guztienari baizik, Nafarroari.

Bereiz ditagun orduan «fuegoak» eta «fuego berria» edo nahi bada «Derecho foral» delakoa. Lehengo «ley fraccionada» delakoa, eta Diputazioe formalak Estaduekin egin dituen erabakietan dago batez ere. Bigarrena berriz orain arte lege zahar batzutan zegoen (batez ere «Fuego General», «Novísima recopilación», «Cuadernos de Cortes»...) orain bildu egin dute eta «Fuego berria» izena ezarri diote.

Gainera «Fuegoak» batez ere administratiboak dira, agintaritzaren eginkizuna egituratzen dute. «Fuego berria» edo nahi bada Nafarroako deretxo zibilar ordea nafararren ekinztza —banaka harturik— egitaratzen du.

Izen berdintza baina izanak, nahiz harremanak eduki, arunt ez berdinak. Esate baterako Bizkaiaik gaurko ez dauka Fueroak, baina fuegoa edo deretxo forala bai (bakarrarekiko alegia, pribatua).

—oOo—

5. «Lege zaharra» esaldia berriz, ene ustez, «l’Ancien Régime» esaldiaren itzulpen bat besterik ez da. Integristek liberalen aurka sor-

tu zuten esaldiaren itzulpena, beraz.

Ene iritziz esaldi honek, hasieran behinik behin, indar politikoko bat zuenez gero deretxo eta eskubide publiko batzuk, elkartearrikiko ikuspen oso bat adierazi nahi zuten. Inolaz ere ez zibileko legeak, nahiz ondorioz hauen bereizkuntza ere ekarrerazi.

Ez naiz toki hontan hasiko integristen eta abertzaleen nola «topatu» edo «toparazi» ziren karlista gerratean. Aitor dezaket ordea —hau bai— «lege zaharra» delakoak «fuegoak» baino indar politikoko zabalagoa eskatzen duela, esanahi sakonagoa duela... Nafarroan 1840. urteaz aurretik ondoren baino askatasun handiagoa zuen bezala.

Beti ere gaurko, ez fuegoak ezta ere lege zaharra ez ditezke izan politika egoki baten helburu edo irudi. Gutxiegi esan nahi dute eta. Ikur edo sinbolo bakarrik dira.

—oOo—

6. Martxoko «Príncipe de Viana» aldizkarian ordea —ai ama!— eta lehen orrialdeko zabalero guttitan artikulu bat dator: «NAPARRA-KO LEGE ZARRAK, AURRE-RA!» izenpetu gabe, editorial gisa.

Horra ba. Artikulu edo editorial honek nahasi egiten ditu «lege zaharra», lege zaharrak, Fuego, Fuegoak, Fuego berria eta sekulako nahaspila azaldu bidenabar.

Adibidez: «Auzitegiaren joanez gero naparra bere legearen bidez epaitua izango da». Esaldi hau hiru modutara uler ditek:

1) «Bere legeak» dituen guztiak direla... baina nere ustez ez du hori esan nahiko ingurukoetatik, «bere» hori «Nafarroako»ren ordez jarria dirudi eta. Bestela gainera txorakeria litzake: Dinamarkatarra ere «bere» legeez eta frantsesa ere bai eta denak horrela epaituak izaten bait dira.

2) Baina «bere» hori lege-prozesala bezala ulertu behar badugu, orduan gezurra da.

3) Eta lege-sustantiboa bezala ulertu behar badugu ere... gezurra da esaldia, gehienetan ez delako egia!

Eta ez nabil artikulu hontan hutsune bila. Goraxeago dio: «Naparra bat dituzte lege bereziko da eta ez bestetan daudenekin». Arraioa! Eta portugaldarra ere bai. Baina «bestetan» hitz hori «beste probintzietan» ulertu behar bada (nere ustez hala da), orduan esaldi hau ere gezurra da.

Beste nahaspila ugariren artean, ken itzazue txapelak, ene irakurleok, hona zer dion: «Europar nazio aunitzetako errialdekoak Naparroak daukan eskubideak lortu nahi litzukete. Aunitzek Naparroaren argia eta beharra benetan daukate».

Amen. «No coment».

—oOo—

7. Buka dezadan —gehiago sakonduko dut laister gai hauetakoren bat— baina hiru aipagune egiten ditut:

1) Artikulu hontan bertan irakur ditek: «Naparroak fuegoak dituela ez zutuzte dugunean, gure eruz ez dakigu zer erran nai duan». Bai jauna! egia handia.

2) Horrelako artikulu bat erderaz argitaratzea lotsa eta farregarrikeria izanen litzake. Orduan zeri? Euskaldun gizagaxoei edozein ziri sartzea zilegi al da? Hementzetik eskatzen diot Diputazioe Foralari hor dagoen nahasketa zuzen dezan.

3) Familia askotan izaten da izeba bat umeekin ama baino askoz arretatsuagoa. Baina titia amak besterik ez du ematen. Irufieko euskal giroan bi pertsona mota mugitzen da: «euskaltzale garbia» (nahiz euskeraz ez egin) eta euskaldun arrunta. «Garbi» horiek, ene ustez, meharregiak lirake aldizkari-zuzendaritzarako, ikastola-zuzendaritzarako, edozein zuzendaritzarako... euskeraz ikasi arte! Eta egia esan, nik izebak asko maite ditut baina titia amak eman zidan.

Nafarar guztiok sinetsi behar genuke Diputazioearen esanetan. Banuen lehen diputadu adiskide bat...

Gorka Trintxerpe

**EGUN EGUNEKOA**

Beste egunean adiskide batekin nintzelarik, Euskal Herriko egoeraz mintzatzerakoan, hala zion nere lagunak:

—Ezin ditek ezer egin gizona, gure asmoak amets hutsak besterik ez dira.

—Eta zergatik?

—Derrigorrezko gizona!

Zerbait egiteko langileak behar dira; aitzitik, Euskal Herrian denak «espezialistak» dira. Batzuk «linguistikak», beste batzuk «marxismoz» eta gelditzen direnak «linguistika» eta «marxismo» zari dira.

HARANZABAL

**ZERUKO ARGIA**


Zuzendaria:  
**MIREN JONE AZURZA**  
ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).  
Donostian: Okendo, 22  
Tel. 42 66 66

**ARPIDE SARIA:**  
Barruan 300 pezeta  
Korreo batasunetako errietan 350 pezeta  
Atzerrietako beste errietan 370 pezeta  
Aldez Aurrez galdetu

Salmetan (ale bakoitzan) 7 pezeta

Irarkola:  
«Gráficas Navasal»  
A. Adoain, 1 IRUIÑEA  
D. L.: NA. 80-1963



**LAUPABOST BERRI** Ekainaren 3an, ohizko Umeen Euskal Jai batez amaiera zaaie Eibarren hamairu egunen buruan eratu diren saioei. Aurtengo Umeen Euskal Jai hau zortzigarrena da eta bertan bilduko dira ipar nahi hego aldeko milaka dantzari eta txistulari. Bezperan, ekainaren 2an., jaialdi bat eratuko da Astelena Pelotalekuan, Zubietako Zarpantzarra, Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Jose Mari Zabala, Xabier Lete, Pantxo eta Pello, eta Arze anaiek osaturiko dantza, kanta eta txalaparta ihardunaldi batez.

Garai onez, mahaiburukorik gazteena zen Andu Lertxundik Sariaren azken erabakia jakinarazi zigun, hona hemen hitzez hitz: 1973-ko Tolosako Saria emateko izendatua izan den mahain-burua Tolosako Urdira Txiki Elkartearen Biltokian batu da, Sariaren azken erabakia hartzeko. Sariketara heldu diren lanak aztertu ondoren, erabaki hau hartu dute mahaiburukoek, aho batez: 1. 1973-ko Tolosa Saria emangabe uzten da aurtengoz, ezarritako baldintzak bete ez direlako batipat. 2. Mahainburukoek erregu bat egiten diete Sariketa honen antolatzaleei: emandako 10garren arauri dagokionez, ahal den neurrian oraingo Sari horiek beste batetarako gorde daitezela, alegia. 3. Eta, horrez gain, ikas-libururen Sariketa hontarako beste dei bat egin dadila lehenbailehen gure Ikastolak dituen beharrikizun gordinak bete daitezela. Hau da 1973-ko Tolosa Saria-ren mahainburukoek hartu duten erabakia. Tolosan, 1973-ko maiatzaren 19-an. Emeterio Zaldibia, Joseba Intxausti, Andu Lertxundi, Beraz, aurtengoz Tolosa Saria emangabe gelditzen da, eta lehen sarirako gerturik ziren 40.000, — ptak. hurrengo Sarirako gordeko dira, beste horrenbeste ezarritik. Beraz, 80.000, — ptako. Saria ez da, ez, bada ezpadako saria. Ikastoletarako liburuak prestatzen ari direnak edota presta ditzaketenak has daitezela lanean, Ikastola beren lanen zain bait dugu, eta Tolosako Lizardi Kultur Elkarte, berriz, laurogei mila peseta hoiek in “zer egin ez dakielarik”.

**LUIS ORMAETXEA** Maiatzaren 15a. Goizeko 8'30ak baino ez dira. Telefono hotsa lantegian barrena. Nor ote? Juan San Martin da. Zer nahi ote dik Juanitok honen goizo... —Egunon, ba ahal dakik nor hil den? —Hil? Ez, ez... —Luis Ormaetxea. —Koldo? Noiz? —Bart.

Nik ez dakit nola arraio jakitzen dituen Juanitok honelako berriak, zeren, hauxe marka!, Koldo ene lengusoa zen, edota, hobeto esan, ene lengusina batez ezkondua, eta gainera, Argentinan hila! Bai, albiste txarrek onek baino abiada azkarragoa izan ohi dute. Honako honek behintzat laster asko iragan du itsaso zabala. Maiatzaren 13an, eman omen zion ondoezak, eta bihamanean joan zitzaigun behin betiko. Luis Ormaetxea Eibarren jaioa genuen 1900 urtean, eta bere jaioterriko eta Euskal Herri oroko kezak eta ardurak gazterik bereganatu zituen. Teknika ikasketak egin zituen, eta Eibarko industriagintzan hainbeste zer ikusi izan duen Armeria Eskolako zuzendari-ordezko izan zen. Azken gerratean, berriz, halako abertzaletasun bortitz batek eraginik, gudarien komandante izan zen. Ondoren, hanka egin behar izan zuen, Irlandan egon zen leheniketa Argentinan gero, eta Buenos Aires-en (Casteal-en) bizi izan zen azken hogeita hamar urteotan.

Idazle bezala, “Isasi” izengoitiz baliatu izan zen, eta bere lanak “Tierra Vasca”, “Euzko Deya”, “Eibar”, “Anaitasuna” eta “Zeruko Argia” aldizkarietan argitara eman zituen. Oker ez banago, oraindik ez da hilabete askorik ZERUKO ARGIA honetan Argentinako berriak eman zizkigula.

Haren euskalduntasunak ez zuten akaburik. Hemengo berriak eta aldizkariak poz-atseginez irakurri ohi zituen, eta Euskal Herrikeri urrutu bizi beharrak ez zuten haren etxean barrena ama-hizkuntzarik bazterarazi. Izan ere, diogun haren ohorez eta gure lotsaz, Argentinan jaiotako haren seme-alabak hogoitaka urterekin lehen aldiz Euskal Herria etorri zirenean, ez zutela Eibarren beren sasoiko senideen artean ia noiekin euskaraz hitzegin izan.

Hamalauren bat urte nuen nik ene lengusoa ezagutu nuen. Hendaia eraman ninduten, berak ez bait zuen sasoi hartan Hego aldera etortzeko baimenik. Ez naiz sekula ahaztuko nola atera ninduen etxetik, eta Hendaia inguruko gailur batetatik Bidasoa hibaia erakutsi zidan, bai eta hogeit urteren buruan ikusi gabe zuen Hego Euskal Herria ere... hemen aipatuko ez ditudan burutapenak esanez.

Geroztik, urteak joan eta urteak etorri, nitaz kezkatzen hasia zen, ene idazlan kozkorretan ez bait zituen beti nigandik espero zituenak irakurtzen. Eta are gehiago kezkatu, bi urtetarik behin Euskal Herria etortzen zen bakoitzean Bilbaur inguruan baten batek (ero konkretu batek, alegia) burua berotzen zionez gero, nahiz eta gero, elkarrekin hitzegin ondoren, berriz ere erabat lasaitu.

Joan zen udazkenean agurtu nuen azken aldiz Koldo, eta aipamen bat ere egin nion ZENBAT GARA sail honetan. Nork esan orduan ez genuela gehiago elkar ikusiko? Gure doluminak Maritxu emazterari, bai eta Miren, Arrate, Gorka eta Begoña seme-alabei ere.

Agur, ba, Koldo, Egun handirarte. Martin Fierro-*ren* lur emankorrek ez ahal du euskal hazirik ernarituko?

**HAURGINTZA MINETAN** Hona 1972 Txomin Agirre Saria irabazi nuen nobela, Mikel Zarateren lehena, Tolosako Hamabostalduan ikus ahal ez genuena, ETORREN 21.garrena edota... lehena.

Irrikaz ginen noiz aterako zen, aspalditxo bai bait genien ateratzeko zela. Baina, nonbait, istiluak istilu, atzeratu egin zaigu apur bat. Ez dio axolarik, ez bait gara horregatik samurtuko, izan ere, goiz nahiz berandu, irrikaz espero genuen eta irrikaz ere irakurri, irakurri ezezik... irentsi.

Egia esan, nobela-nobela bat espero genuen, eta hara non nobela euskaldun bat agertu zaigun. Honen “euskalduna” eze, euskal-irakurle behar bait du irakurleak izan harian harian jarrai ahal izateko; eta, segurutz, inoiz beste hizkuntza batetara itzuliko balitz, erabat ulergaitz gertatuko lizateke zerbait pasartetan.

Nobela bat baino, kronika bat da. Ekidazu deritzan herrikria batataka kronika, Olazaharko familiaren kronika. Kronika luze eta aski hedatua, mutur gabeko hari askorekin, baina hari orok korapilo bat bakarra osatzen duelarik.

Den den, nobela noski, mozarrodun nobela, edota 139 orrialdean adiarazten denez: “logikagabetasunaren logikaz sortua eta idatzia... mozarroak, irudiak, simboloak irakurtzen dakienarentzat, mozaroen barruan nor edo zer dagoen ikusten ahalgintzen duenarentzat, ulertarrazo izango dela uste diat”.

Izan ere, nobela guztia mozarroz josirik dago, giltzez bete, irakurlearen araurera atek ireki edo itxi ditzaketen giltzez bete. Halaber, esan-nahi izkururik ugari da nobelaren mamian barrena, Euskal Herriaren egungo egoerari dagokien esan-nahi asko, 109garren orrialdean euskal aldizkariaren “izkururk” aipamenak bezalaxe. Horregatik genion bat, hasieran, euskal-irakurle behar duela izan liburu hau esku artean hartzen duenak.

Nobela atsegina eta irakurteraza, bestalde, egileari nabari zaiho bizkaitar jatorria, eta agian guretzat —enetzat— erraztasun darion arrazoi berberau zail gerta dakioke beste zenbaiti. Hala ere, guk ez jakin, baina, ez eta uste ere.

Liburua azkenik, ETORREN 21.garrena bezala agertzen zaigu, aurreko 20 aleak bereak balira bezala. Eta, oker ez bagaude, izna baino ez du ETORREK berea, dendarren batetan erosi beharko bait lituzke ale guztiak —KIMU Sailer tartean delarik— harpideudnen batek eskatuko balizkio. Honetan dago, bear bada, izena eta izanaren alde.

Amaitzeko, eb dakigu, ez, nor atera den irabazten ETOR/GERO hauzi horrekin, ez eta dagoeneko merzei ote zuen ere, are gutiago liburu hau irakurri gero. Irabazlerik ez bada, saltzailerik ote den beldur gara, ordea, Mikel Zarateri galdetu behar, agian. Panagarri...

**IPAR HAIZEA... HAIZE FRESKOA** Ekainaren 11-an, mendekoste bihamanean, Donibane Lohitzunen eratuko da “Dantzari Eguna”. Iaz zortzirehun inguru dantzari bildu zen Getarian (Lapurdi) honelako egunez, eta aurtan ez da, antza, gutiagorik izanen Donibanen.

Aurtan gainera, Baxenabarreko folklorea goratu nahi delarik, Baxenabarreko “kabalkada” ere bertan izanen da, bere ohizko “makilari”, “zangur”, “zaldizko” eta gainontzekoekin.


Abuztuaren 6tik, 13ra, eratzeko dira Boudonne-n Ipar Euskal Herriko 1973 Uda Ikastaldia. Bi sail izanen dira: euskaraz ez dakitenentzat, eta euskaraz dakitelarik goragoko mailak urratu nahi dituztenentzat. Ikastaroaren prezioa 600 Fr. edo 7.200, — pta. izanen da.

Iaz berrogeiren bat gaztek hartu zuen parte. Aurtan ez dute antolatzaleek gutiagorik espero, ez eta hurrik eman ere. Ea ba! Inork nahi balu izena eman edota xehetasun gehiago jakin, idaz beza zuzenbide honetan: Alfabetatzeko Batzardea, 32, rue Bourgneuf, 64100 - Baiona.

Bordeleko Agur aldizkariak aditzera eman digunez, datorren udazkenean ikastola bat irekiko omen da Bordelen bertan, urrian edo, ikastaroa hasi egunetan.

Ikastola hau bi urtetatik sei urtetaraino haurrentzat moldatua izanen da. Euskaldun asko da Bordelen hala beharrez, baina ez dute, ordea, euskal zentzurik galdu, behar duen legez. Gure zorionak, ba, Bordeleko euskaldunei.

Parisen ere nahi da ikastola bat muntatu, eta asmo honetan ari dira Euskal Etxea elkarte arduradunak. Lehen-dabizi, ezertan hasi aurretik, inkesta bat egin nahi izan da Pariseko euskaldunen artean, zenbat haur dagoen, zenbatek euskaraz dakien etxean zer hizkuntzatan mintzo ohi den, etab. etab.



Euskal Etxearen babespean ere bad antzerki talde bat. Gazte kezkatu multzo batek osatzen du, nonbait, eta antzerki soletan ezezik, beste zenbait arazotan ere nahi luke ihardun. Hona hemen Euskal Etxeko antzerki talde horrek zabaldu duen lerokada: “Ez gira artixak, baina nahi izan dugu herriko buruhausten gainean pentsaketa batzu egin arazi. Zertara etorri zirete Pariserara? Eta Parisen zer ari zirete? Gauza horiek nahi baldin badituzte barnago ikusi, zatorze Euskal Etxera astelehen eta ostiraletan, arrateko 9tan”.

Sail honetan garai onez esan bezala, martxoaren 31an. Zuberoako dantze buruzko saio bat eratu zen Parisen. Biltzar hartan “Kantore Berri” deritzan disko berri bat aurkeztu zen, Pariseko zuberotar talde batek burutu, hala nola, Larraki, Tx. Etxart, Latxikana, N. Etxart eta Manex Etxegoien gazteek egina.

Bainako “Ikas” deritzan elkarrekin eratua du aurtan ere haur idazlehiaketa bat, Ipar Euskal Herriko ikastoletako haur guztiek parte har ahal dezaten. Aurtengo idazlehiaketa honetako gara Itsasoa izanen da.

Aita Riezu kaputxinoa Nafarroako euskal kanten —hitz eta musika— bilduma bat prestatzen ari omen da. Baxenabarre ere ez du inolaz ere baztertu Nafarroa guztiko bilduma horretan, eta dagoeneko bilduko omen ditu Baigorri, Garazi nahiz Amikutzeko kanta zaharrak.

Picasso hil da, edo hobeto esan, joan egin da, ez bait da hil, ez eta hilgo. Horra hor non joan zaigun egundainoko emaitza utzirik. Bere kuadririk ezagunenetakoa, are gehiago euskaldunentzat, “Gernika” izenekoa dugu, batere dudu izpirik gabe.

“Gernika” Espainiako historiari erabat atxikia dugu, Goyaren “Maiatzaren 2ko fusilamendua” eta Velazquez-en “Lantza” edo “Breda-ren etsipena” atxikirik dauden bezalaxe. Honegatik eta best zenbait arrazoirengatik ere, betidanik nahi izan da “Gernika” kuadro hori Espainiaratu. Baina, nonbait, Pariseko “Louvre” Museoa aukerakoago ote Picassoren berraren ustetan?

Orain jakin dugunez, berriz, ba omen daiteke kuadro famatu hori Euskal Herriko museoren batetara ekartzea. Bai-nako museo horretarako propio aipatzen delarik.

AMATINO



Ekainaren 12tik, 21era, arteko hamar egunen buruan iraunen duen programa nahiko jori batez, omenaldi bat eskainiko zaiho Jose Migel Barandiarani bera jaioa den Atauen bertan. Denetarik izanen omen da, hitzaldiak, bertso-lariak, kantariak, liburu azoka, dantzari eta txistulari jaialdiak etab. etab. Horrez gainera, Euskal Arte Erakusketa bat era izanen da, eta ez nolamahikoa, Tolosako Euskal Kultur Hamabostalduan egon den berbera eramana izanen bait da Atauera.

Joan zen Iarunbatean, maiatzaren 19an., Tolosan ginen Arte Erakusketa hori ikusten, eta jendea oso pozik zen Jose Migeli egin behar zaien omenaldi hau dela eta. Denok aho batez aitortzen zuten gure Atauako mutikoak inork ez bezala merzei zuela omenaldi hori, bere gizotasun eta gizatasunagatik batipat. Juan Luis Goenaga pintore donostiar gaztearekin ere mintzatu ginen horretaz, eta benetan ilusioz beterik zen Atauera joateko.

Maiatzaren 31ra, arte iraunen du Iruñean Txillidaren erakusketa. Gero, berriz, erakusketa berberori Lizarra (Estella) eta Zangoitzera eramana izanen omen da.

Itxura denez, bestelako aldaketarik ez bada behintzat, abuztuaren 28tik, irailaren 8ra, Donibane Lohitzunen eratuko omen da Iparraldeko Uda Unibertsitatea. Ikasaldikoz “Ikas” elkarrekin eraturik izanen dira, eta beste zenbait hizlariaren artean Luis Mitxelena, Alfonso Irigoien, Jose Migel Barandiaran eta Aita Villasante Euskaltzainburua mintzatuko dira. Gaiak, berriz, literatura, hizkuntzalaritza, kondaira, ekonomia, antropologia, pedagogia, zientziak etab.

Irailaren ere, Donibaneko Uda Unibertsitatea amaitu bezain laster, Euskara Idatziaren Batasunari buruzko zenbait ihardunaldi eratzeko da Eibarren, Aita Villasante, Koldo Mitxelena eta Joseba Intxausti jaunak bertan izanen direlarik.

Tolosako I Antzerki Lehiaketa ez da oraindik erabaki. Epai mahaia hiru talde aukeratu ditu, nork bere antzerki lana aurrez dezan, Gasteizko “La Farandula”. Oartzungo “Intxitxu” eta Iruñeko “Anaitasuna”. Aurkezpenak ekainaren 5, 6 eta 7an, izanen dira.

**LEHEN TOLOSA SARIA** Esan bezala, maiatzaren 19an. Tolosan ginen, egun hartan erabakitzen bait zen afari batez 1973 Lehen Tolosa Literatu Saria, sariaz gainera afaria bera ere txaxetako atxakia ez zelarik. Ondo hartu ginduzten “Urdira Txiki” elkarrekin, eta adiskidetasunean bildu ginen hogoitakaka lagun, Lizardi Kultur Elkarteko Hondarribal langile amonruaren ardurapean. Han ziren ere, nola ez, aurrez epai-mahaikotzat izendaturik ziren Emeterio Zaldibia, Joseba Intxausti eta Andu Lertxundi.

### Europako langileria

# LANGILE ESKABIDEAK ABERASTU

Frantziako sindikato nagusienetakoa den C. F. D. T. izeneko erakundeak kezkatu dabil Pirineoz goitiki sortzen ari den langile egoera berriaz. Teknika eta zientziare bidez egosten eta eraberritzen ari den produzioaren zabaltze ikaragarriak ondoren haundiak dakartzki gaurko langile-pentsamoldeetan eta bere egoera sozialean.

Goi mailako espezialistak ugaritzen doazte langileen artean. Ekonomiaren hirugarren saila zabaltzen eta beste bier garrantzia kentzen dago. Lantegiak, egiten diren inbentario garestiak bide direla, geroz eta gutxiago gelditurik egongo dira eta langile emigratuak eginkizun berezi bat behar izango du.

Gertakizun hauen aurrean, lehen bezala jarraitzerik ez dagoela ondo asko oharitu da C. F. D. T. sindikatoa eta sail berriak bere borrokarako aukerak ausartu da. Hemen zehar agetuko dira hoiak zehar.

#### MARJINATUKOEN ARAZOA

Sindikatoak garai batetako langile aurreratuenei zor die bere sortzea. Industrietako gizon haiek erantzunkizun berezia zuten garai hartan eta beharrezkoa zate gaurko egoerari buru egitea. Gaur egun ezinbestekoa da menpekotasuna eta eraturik dagoen lanaren mina jasaitzen duen langile jarduera orok sindikatoak daramazkite egituretan eta borroketan saritzea. Emakumezkoak, emigratuak eta jubilatutakoak bere tokia eskatzen du langilearen mugimenduan.

Alderdi honetan gogor ekin behar zaio emakume gizonezkoen artean jomala eta profesioari buruz dauden ezberdintasunak baztertzearren. Emigratuak ez dute aurrerago maila merkeago batetan ibili beharko eta erretiratuen jomala produzioan dabilzenez minimoa, gutxienez, kobra behar luke.

Eskabide hauen aldeko borroka ekarri behar ditu gizon bakoitzaren eta guzieren arteko modu aberatsago bat eta menpekotasunik gabeko harreman ugariaren haunditze bat. Kapitalak eratutako eredu kulturala indarrari esker irauten dagoelarik, bere nagusitasuna desegin behar da.

#### ERABAKI ERAKETAREN IRAULTZA

Lantegietan bezala, nonahi aurki ditzakegu aginte jerarkikoaren ondoren gaiztoak. Eskolan bezala etxean edo soldauzkan eta gizartearen zoko denetan jerarkia nagusi dugu. Lehen, jaikoaren izenean agintzen zuten erregeek. Horain, dituen izenean agintzen da eta zenbait tokietan Alderdiaren edo talde teknokratikoen.

Aginte mailatan dagoen zoko bakoitzean jomala jerarkian oinarritzen dira. Jerarkiak zaintzen ditu sortze eta bete lanaren arteko ezberdintasuna eta bereizketak. Agintaritzaren eskutik eratzen da lantegia eta langile bakoitzaren tokia eta kualifikazioa.

Goikoen eta behekoen artean dauden jomala ezberdintasun ikaragarriak gutxierazteko borroka egin beharra dago. Bide horretan eratutako lan erakundea zalantzan jarri behar da etsi gabe.

Langile borroka eskerrak hainbat gazte goi mailako ikastetxeen artean iragan ditzakeelarik, etor daitezkeen edozein selekzio bideari uko egin beharra dago. Borroka honek gizarateko lanaren eraketa berria eskatzen du zalantzarik gabe.

Jerarki mailaren aurka doazte gizona eta teknikaren aurrera berak. Hala ere ez da aski historiaren hildotik jarraitzea, kapitalaren sentzua hortaz jabetu bait da ere.

#### HAZIKUNDEAREN AUKERA

Jornalen altxatze eskabideak agelditzen dena, kapitalismoa beraren berritze eta zabaltzeko lagun dezaike. Bizi mailatik bizimodura dagoen alderdiak ez da txantxetako eta hortantxe dago kakea.

Rentableak diren sailak bakarrik indartzen badira aste bukaeratako herriska berriak sortzen hasi beharko dugu eta bizimoduaren zatirik haundienaren usteldutako bazterretatik bizitzera jarraitu beharko dugu.

Jornal txikiak haundiak baino azkarrago igo ditezten, guzientzat beharrezkoagoak diren eraketak norberaren baino garrantzi haundiago hartzen dituzten, fiskalitate egokiago bat ezarri dadin, kultura eta osasun alde-tatik lantokiak ugaritu ditezten eta bazterretatik garbiagoak egon ditezten gogor egin beharko da. Hiriak herritar langileek izan behar dute.

Europako mailan langile eta erakunden artean geroz eta indar haundiago hartzen ari diren autogestioa, cojestioa, langile kontrola eta industri demokrata bezelako hitzak errealitate bat hartzen joan behar dute. Hoiak adierazten dute ezarri den lana egiteko era eta bizimoduaren aurkako joera.

Hori dena ordea ez dago lortzerik lantegietan biltzeko eta jarduteko eskubidea ez dagoenean. Lantegietan lortu behar dira hitza hartzeko eskubidea, biltzeko eskubidea. Eskubide hauek langile guzikiak lortu behar dituztenak dira eta ez soilki delegaduen batzordeak edo sindikatoen ordezkariak. Ekintzarako datozten goiko aginduak baseko borroken eldutasunaren neurrian behetik eratutako proposamenei bidea egin behardie.

Bakoitzaren aportazioari begiratu beharra dago eguneroko bizimoduaren artean librea gerta dadin. Bestela oso zaila izango da guztien ekintzaren bidez norberaren askatasun mailara irixtea.

Bidea luzea dela eta langile asko dagoela borroka honetan sartzeko esanaz bukatzen du bere jarduna C. F. D. T. ko idazkari nagusiak.

D. IZA

### Munduan Zehar

# Afrikaren EGOERA GORRIA: LEGORTEA, GOSETERA...

Afrikari gertatzen ari dena, benetan, beldurgarria da. Miloika pertsona, Sartalde partean batez ere, il zorian arkitzen da. Legorte ikaragarri bat dela eta jendea gosetik itzateko arriskuan bizi da. (Egoera orri bizitzatzen jo baleike, behintzat).


Irurogei urtez gero ez omen da orrelako legorterik ezagutu. Eskualde askotan, legorte onek bi urte pasa diardu. Gure inguru autan, pare edo iru bat ilabetetan euririk egiten ez badu, legorte itza beharrela aipatzen dugu. Zer esan beraz, Afrikako zenbait lurraldeetako egualdiaz?

Egoera orri kopeta erakusteko, munduan zehar, zenbait egiten ari dela ezin daiteke ukatu. Europa Elkarte bederatzi estadiak beren laguntza agintzen dute aste onetan bertan. F.A.O. erakundeak ahaleginean ari da jendea esnatzen eta arzo onetaz arduratzen. Bihotz oneko beste zenbait erakunde ere ekin die lanari. Alaz ere, laguntza, gaurkoz ez da nahikoa eta gutxiagorik ere.

Laguntza orri azkarrago egin behar da, ugariago izan behar du eta obeto eraturik izan behar luke. Uda joaneta gero presa egiten astea alferrrikakoa dela denok endo dakigu. Emen ere, orrelako zenbait gertatzeko arriskua dago. Afrikako buruzagiak dira, gainera, puntu onetan erru dun. Igazko udazkenez gero ederki zekiten zer gerta zitekeen. Baina, orratx, ez zuten ezer adierazi. Orain artetxe ixilik egon dira. Orain, erioan, denak orruaz asi dira laguntza eske.

Laguntza bera ere behar bezala ezarri ez du erraza izan behar. Laister eguraldi txarrak izango omen dira. Bide asko itxi egingo omen da. Laguntza urri txikiatara irixten nahiko lan izango da. Lurralde orietako egoera, zinez, latza da. Bestalde, erakunde bakoitzak, estatu bakoitzak bere kabuz, berak bakarrik laguntza eman nahi du. Bakoitzak bere alde-tik dabil. Erakunde baten babesean laguntza guziki ekartuko balira askoz obe izango litzake baina...

Dena den, egoera garrantz onen aurrean zenbait galdera datorkit burura, bat bakarrik egitea aski izango da ordea: laguntzaren arazoa alde batetara utzirik, egoeraren kulpak legortek bakarrik al ditu? Ez, eguraldiari ezin daiteke erru guzika erants. Lurralde orietako gizarate egituretan bada errurik eta andirik gainera. Nekazaritza ez da behin ere behar bezala tajutua izan. Kolonialismo garaian momen-



Agades-ko inguruan ere putzuak utsak daude, abereak akabatu egin dira. Irurogei urtez gero ez omen da orrelako legorterik ezagutu. Ahal bezala iraun egin behar, zatarrezko txabola aietan.

tuko edo uneko dirua bakarrik ajola zitzaien imperialistek. Lurra ez zen behar bezala landua. Lurra eman dezan lurriari eman egin behar zaien. Lurra zaindu egin behar da. Orrelakorik ez da egin.

Legortea ez ezik ugoldeak ere andiak izaten dira. Ur orri zergatik ez da biltzen?

Ura bildu eta gordeaz gero zabaldu daitezke. Egin diren pantanoak tiki tikiak dira. Ondorenak gero jasan behar. Afrikako buruzagiei, nonbait bost ajola zaien erriaren on. Gizarate egitura jator batzuk sortu beharrean, erriaren onari begiratu beharrean, bakoitzak bere sakelari begiratzen dio.

J. E.

## CHILE: Gudu baten arriskua

Allenderen lehendakaritza une larrian arkitzen da. Izan ere, eraso gogorra da. Duela bi ilabeteko auteskundeetan, eskuiko alderdiek ez zuten lortu nahi zutena eta gutxiagorik ere. Maioria gorde arren eskuia ez zuten irutirik bi atera. Allende ezin zitekeen beraz lehendakaritzatik bota. 1976 urte arte Allende lehendakaritzan jarrai zezakeen. Legeak agintzen dituen bideetatik eskuia ez ezer egitekorik.

Garbi dago. Beste bide bati ekin dio. Ahal duen leku gehienguan lana geldierazten edo huelgak sortzen ari da eskuia. Igaz, udazkenean transportistak gelditu ziren, orain kobre edo okain minak gelditzen asi dira. Kobreako edo okainak ikaragarriko garrantzia darduka, orratx, Chilerentzat. %eko 80 dibisa kobreako edo okainaren bidez datorkio Chileri. Huelgak dirrelata iturri orri ixten bada ondorenak gogorak izango dira.

Chilen, soladatarik andienak okain minetako langileek jasotzen dituzte. Alabaina, iru aste bada ramazkite lanik egin gabe zenbait minetan. Nolaz, ordea? Langileak baino gehiago mugitu direnak ofi-

zinalak, administratiboak eta teknikoak izan dira. Langile xehe askok berriro ere lanari ekin dio. Baina bost bat mila tekniko eta abar nahikoa da ordea minen martxa aulazateko.

Eskuiko aldiriek gogotsu goratzen dituzte lan gelditze oriek. Izan ere, soldata arazoa baino politika arazoa gehiago da. Teknikoen artean eskuiko aldiriek arrea obeagoa dute ezkerrekoekin baino. Aitzaki bat eta bestez baliatuz eskuiko aldiriek xaxatu dituzte. Egoera kaskaztea komeni zaio eskuinari. Allenderen politika desegokia dela adierazi nahi du.

Gauza jakina da orrelako unetan edozer gauzarik eltzen zaiola. Allenderen etorkizuna iluna da. Chiletarren artean gudua sortzea ez litzake arriztekoa izango. Orretarako jendea prestatzen ari da. Fazioaren arriskua andia da.

«Patria y Libertad» deritzan mugimenduak onela zion bere izpirringian. «Demokrata kristauak, behin behingoz esan zazute garbi, zer nahi duzuten. Gobernuaren alde ala aurka zarete? Allende guber-

nuan jarraituko du ala utzi beharko du. Ori da arazo bakarra. Ez zaitete irtenbide berrietan nahas». Garbi garbi dago talde fazista onen nahia zer den. Gudua sortzea bost ajola zaien. Nahiago dute, gainera.

Kristau demokratik zalantza betetan arkitzen dira. Bide orri, oraingoz ez dute onartzen. Legearen bidez, Allende ekonomia arloan izan ditzakeen aginordeak kendu nahi dizkie. Orretarako proposamen bat egin dute. Proposamen orri aurrera ateratzeko Parlamentuko irutari bi autarki behar omen da Allenderen uestez. Kristau demokratik, uestez berriz maioria lortzea aski da. Demokratik kristauak irabazten badute, Allenderen lehendakaritza uestean geldituko litzake. Bere jokabide guzika, izan ere, ekonomiko egiturak aldatzen ahalegintzea izan da. Zituen eskubideak kentzen baldin badizkie, zer egin behar du Allende? Onak ere, ez al du arazoa erabakitzeko borroka joko? Berak, ezetz esaten du. Egoera gehiago gogortzen bada, zer egingo du?

J. E.

## BREJNEV - BRANDT Europaren ahulezia

Brejev Bonn aldera etorri da. Brandt eta berak izango dituzten elkar izketak baliagarriak izango direla ukatzerik ez dago. Rusiako buruzagia sartaldeko Alemanira etortzea, duela bi urte inork pentsatzen ez zuten gauza gaur egia bihurturik ikusten da. Poliki poliki gauzak beste itxura bat artzen ari dira aldatzen ari ez bada behintzat.


Ekonomia mailan garrantziako elkar izketak izango dituzte. Gaur egun, estatu kapitalisten artean ezda besterik ekonomia saillean Alemania baino tratu ertsiagorik duenik Rusiarekin. Arreman oriek geroz eta zabalagoak izango direla bide da. Brejev egotekoa da Alemaniako nagusi jendearekin. Alemaniako teknika eta kapitala Rusiari oso ondo datozkie. Laguntza orri beldurrik gabe onartzen du. Izan ere, gauza arrigarria ari da gertatzen. Sozialista izeneko esta-

dutari geroz eta kapitalista dirua ugariago ari da sartzan. Zer esan nahi du onak? Sozialista izeneko estadiak ez direla ain sozialista ala taktikaz bakarrik egiten dutela? Ez al da laguntza orri eskatzea beren ahultasunaren aitormen bat ere? Areago oraindik, Sozialista izeneko buruzagiek beren estadietako atek kapitalista diruari erekiak ez al diote bidenabar kapitalismoari irten bide bat eskeintzen? Ez al dira sozialistak berak kapitalismoari iraun erazten laguntzen ari?

Galdera asko etortzen da burura. Erantzunak urriagoak dira. Bapatean ezin daitezke behintzat erantzun. Dena den, galdera oriek egin beharrezkoak ziren. Nere buruari orrelako amaika galdera egiten dizkiot. Ez dugu, izan ere, gizara jo bezala jokatu behar.

Diplomazia mailan ere garrantziko elkar izketak izango dira.

Europari buruz asko mintzatuko dira. Brejevnek idanik gudaroste arazoa aipatu izan du. Bere asma Ipar Amerikak Europari dituen indarrak etxeratu nahi ditu. Orretan ari da jo eta ke. Brandt postura zer nolakoa den jakitea beharrezkoa zaio. Brandt, ain zuzen, Ipar Amerikan izan berria da. Brandt postura, beraz, Ipar Amerikaren posturaren adierazle izango da. Eta orri jakitea Brejevni komeni zaio. Izan ere, udazkenean, Ipar Amerikara joan behar du. Aruntza joan baino lehen arazoaren berri ondo jakinaz egon behar du. Azkenean Ipar Amerika azaltzen da. Europako estadiak, berriz, bien tarteko dira. Onak ez du esan nahi, Europako estadiak nortasunik gabekoak direnik. Bakarrik, azkenean, oraingoz arazoa bi andi-mandi oriek erabakitzen dutela.



BERTAN ETA ESKURA GAITUZU

ZURE ZERBITZURAKO LANEAN ARI  
GERALAKO

OFIZINA BERRIAK NON NAI ZABALTZEN ARI  
GERALAKO

GURE OFIZINETAN EGIAZKO LABUN BAT  
AURKITUKO DUZULAKO

ZURE KEZKA ETA ARAZOAK GURE GAIN  
ARTZEKO PREST GAUZKAZULAKO

ONA EMEN ZURETZAT ZABALDU BERRIAK  
DITUGUN OFIZINAK:

ERMUAN

DURANGON

REKALDEBERRIN


ALGORTAN

HERRERAN

AMARAN

EGIAN (Ekainaren 16an zabalduko da).

IKUS DEZAKEZUNEZ



# Banco Guipuzcoano

GERTUAN DAUKAZU

ZURE ZERBITZURAKO

PRES TETA GOGOTSU

LIBURUAK

## GATU BELTZA

Ezaguna da Txomin Peillen idazle bezala. «Gernika», «Euzko Gogo», «Egan», «Jakin», «Igela» eta «Eusko Folklore»n idatzi izan du. Badu lehendik ere Gauze ibiltzen dana deritzan nobela bat.


GEROn argitara digu oraingoa: GATU BELTZA. Ari da GERO lehen-go urtearen azken liburuan agindutako liburu zerrenda poliki poliki ateratzen, atzerapenak atzerapen.

Javier de Villa-ren azala du Txomin Peillen-en liburu honek. Eta Basauri jaunak erraztu digu Parisen jaio zen xuberotar honen hizkera. Badu atzean hiztegi egoki bat ere irakurleak hitz ez ezagunak ikus ditzan.

Xuberotar bati dagozkion hitzak ezarri dizkiote liburuari atzekaldean: «Jon Mirande hil bazaigu ere, ez zaigu hilobiratu. Gertatu dena, haizea zuhaitzen adarretan etzan dela. «Ilargia eguzkitu dela. Gatua beztu, beztu, bi begi beltz bilakatu zaigula TXOMIN PEILLENen kezpean.

«Xuberoko haize geldiren jarioak isuri dira Paris aldean. Eurien kristal bustia puskatu da mila dirdiretan.

«Eta PEILLEN datorkigu gatu beltz —xapi, xapi—, aide jori, kidetasun



gorri. Xapi, xapi, kanpoko haize hotz horiek!  
TXOMIN PEILLEN — GATU BELTZA  
GERO

IRASTORTZA

Bertsolarien  
doiñuetako bat


Maiz asko entzun oi dut bertsolarien artean onoko doiñu au. Ainbeste doiñu mota izaki eta auxe izango da noski euskal antzik duen gutxienetako bat. Zerbait orrela dio:




Eguediero-eguediero irrati bidez baten batek doiñu auxe bera kantatzen du bere bertso berri gai.

Euskal musika joeran oso bakan (ia beñi ere ez) entzun araziko da bi edo iru aldiz gauza bera, edo gutxienez beintzat berdintsua; erderaz "progresión" deritza.

Leen esandako kantu ori gaitz onek jota dago ba.



Ori aski ez dela, bere kantatzeko jardura ere ez da egokia ez euskal doiñuari dagokiona. Badira erderaz kantu onen berdiñekoak: "Nobleza baturra" izeneko pelikula batean ez da oraintzeko kantua delako au:



Agerbide auek eta guzti, irakurle asko leen bezala geldituko dira, musikarik ez badakite eta nik ezin ba besterik egin, ez bainaiz asiko kantari...

Ainbeste doiñuren artean askok beintzat erderazko bertso doiñu ontara jotzen du. Nunbait, dotoreago ote den iruditzen.

Euskal musika-odola bertsolarien doiñuetan badan ala ez, ez da aipatu dugun bide ontatik jota izango beintzat. Ala eta guztiz, euskal musikaren izaera ez uste kantatu utsean dagoenik, bere armonizko joskeran baizik.

Arkitu ezin aal bada euskal musikaren izaera bilaka ez ari. Billatu ez, arkitu egin bear da.

Nai lukete zenbaitek euskal musikaren izaera eta sustraia zertan dagoen jakin eta au ezin asmatu dabilta alfer alferrik, bati deitu besteari galdetu. Luis de Pablo, Bernaola, Azilu eta gainerako...

Auek au esan duela, besteak ura esan duela et gu aazabalka oien euskera gabeko jakinduriarekin...

Gaur-gaurko musika orrek ("vanguardista" delakoak) ez dio betiko musika kastari itzalik egingo: bati ondo datorkiona besteari gerta dakiok kaltegarri.

Aurrerapena bai, baiña ez "vanguardismo" zororik. Atzerritik ekarri gizonak, alajainkoa, emengo semeak zer egin bear dugun eta nola jokatu bear dugun eraknsteko.

Bela Bartok ezagunak badu musika bizi eta zorrotzik aski, baiña bere erriko kantuak landu nai dituenean, ez ditu sekulan bere onetik ateratzen; eta Bela Bartok ez da zakurraren zaunka... Ikusi bere "Mikrokosmos" oietako erriko kantu ereduak.

Bela Bartok ordea ez da gaur-gaurko musikalarrien antzera kiyoka ari, musika trinkoa eta egiatzko mamidunaren zear baizik.

Lotsagarria da kanpotarrei galdezka ari bearra: auetatik bat Bernaola euskalduna, Madrilen bizi dena. Emengo gizonak oni galde egin eta Bernaola bera arritua gelditua da nere "Donostiko kantu zaarrak" eta "Eusko dantzak" nolaz eratuak dauden ikusita; bertako gizonak, ruñbait ere, ori ez dute jakin nai.

—oO—

Euskal musikalarriak "vanguardismoari" ekin bear diote beraz. Musika onak zer naiko dela, bazter gutitan du sarrera.

Gaur bertan atzerrian geientxoek erabiltzen diran musikalarriak Juan de la Encina (1469-1529), Morales (1500-1553), Cabezón (1510-1566), Milan (1561) eta dira; baita Thomas Luis de Vittoria (1548-1611) eta auen mende-mendeko beste ainbeste eta ainbeste ere.

Paris, Falla, Turina, Granados, Albeniz eta gaur eguneko Luis de Pablok ainbateko txalo zarata sortu izan dute Bretonek bere "La Revoltosa" eta "La Verbena de la Paloma"rekin. Chapi eta Breton ez dira ba ain zuzen, "vanguardismo" aldekoak.

Donostiako Orfeoi-taldea ibili da orain berriro Alemanian barrena eta beinik beñi Carmina Burana (1895) eta Mendelssohn kantatu dituzte, Bouler, Badings, Strategier eta orrelako izeneko eta izaneko musikari biurriak Jaungoikoak dakien arte alde batera utzita.

Euskaldunok arra daukagu biotzean: etxeko ona onartu nai ez eta urrutiko edozein lauketa goratu.

Aspalditik badakigu zer gertatzen dan mundu zabalean, baita zer nolako lan arazoak dabilzkiten ere; ez digu gai ontan inork begiak irek araziko. Gizaldi bakoitzak baditu bere legeak, ez obeak, ez okerragoak; oraingo gazteak zorretan daude, munduari zer erakutsiko; naikoa dute leengoak egin duten lan-aurrerapena gai; gaurko gizaldiak nai duten bidetik, beste ainbeste egitea, eta ez "vanguardismoaren" aitzakiaz, egiatzko musika-doiñak agertzen utzi. Oraingo gazte asko ez dira bide berrietan asit besterik egin eta leengo zaarrak irurogeita amabirterekin, euskal musika arazoan berak baiño aurrerago jo dute.

Euskal musikak aurrera bidea aurkitua du zenbait musikalarrien artean eta egin ez badu, ez da musikaren errua, zenbait musikalarirena baizik. Baiña gaitz ori bazter guzietako gaitza da.

Ber-bera esan diteke Paris, Madrid, Beljika eta Alemaniagatik: an ere badira onak eta txarrak, alde batekoak eta besteak baiña inork ez du esateri Frantziako musika edo Alemaniako atzeratua da. billenik. Gure artean musika kaxkardunak badira or konpon! Begiratu ondo lan egin dutenei, aurre rapide lelo ori alde batera utzita.

Euskal doiñuari jantzi berria billatu bearra da goela: esan dut euskal musikak baduela jantzi berririk, aitortu nai dutenentzako; berria izateko e da nai ta naiezkoa "vanguardista" izatea.

Euskal musikak auekin, euskal giroa zearo gaitz duko du: musikalarriak euskaldun bai, baiña ez musika bera. Denak arnasa berakin lan egiten bai dut uztarriean leer egiñik.

Bada oso goitik jo duen euskal musikalarri baiña nunbait ere "vanguardismo" orren lepotik e ibiltzeaz, ez du goitik jotze orrek ezer balio. Et bitartean, txistua eta txalapartaren esku jarri gure musikaren etorkizuna, bi gauzok munduaren begietarako utsak direla jakiñik.

T. GARBIZU

TEODORO AGUIRRE  
SISTEMAS OFICINA

ZURE LANDOLA ETA OFIZINAK ANTOLATZEN LAGUNTZEKO

PREST GAUZKAZU



Avda. Sancho el Sabio, 6

Urrut.: 415128-429152

— DONOSTIA —

MUEBLES

URRETAVIZCAYA

1929'an sortutako etxea

ERREDIZAK - EDERGALLUAK

EGIN - GAIK eta AURRE - KONTUAK

POSTAS. 46

GAZTEIZ (Vitoria)

J. Aguirre

JOKINDEGIA - SOIÑEKOINTZA

Santa Maria, 5



BEASAIN

billa ezazu giltza au



**ILLERO**

**MILLOI BAT**

pezeta

**BI AUTO**

SEAT 850 BEREZIA

(4 ATE DITUENA)

ZABALTZEN DIZKIZU

AURKI EZAZU

**CAJA  
LABORAL  
POPULAR**

LANKIDEEN AUZO AURREZKI ONTZIAN

ZURE DIRUAK GORDEAZ

BAI GURE OFIZINETAN

Sekundino Esnaola, 5

DONOSTIAN

BAI EUSKALERRIAN ZEHAR  
DAUDENTAN

Denok batera...

eta Caja Laboral denontzat

**MAI-ONA**



**SAGARDOA**

BOUTIQUE

*Snecane*

Gazteen, neska - mutilen, Boutique  
31 agosto, 5 Urrutizkiña: 41 18 75  
— DONOSTIA —



**aristegui hermanos**

ZORUAK ETA ESTALKIAK,  
PERSIANAK, ATEAK, ETA ABAR.  
GARBITOKI ETA ITURKINTZA GAIAK.

ERAKUSTOKIA:  
FUENTERRABIA, 19 - URRUT. 11459  
DONOSTIA

**JOSE ZINKUNEGI'REN  
OPTICA BERRIA DONOSTIAN**

URTIETAN LAN OIETAN OITUA

BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK

Hernani, 4

DONOSTIA

JOSTURKIDEGIA

MODISTEGIA

**UGARTE**

Urbietza, 66

DONOSTIA

**BLAS DE LEZO**

ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINKAGAR  
ETA EDARI GUZTIETATIK

Blas de Lezo Kalea, 6  
Urrutizkiña: 41 20 65

DONOSTIA



# ELIZAREN BERRI

JACQUES MARITAIN "XAHARTUXEA" ITZALI DA

Parisen jaiotzen 1882an Familiaz protestantea. 1906an, Leon Bloy-ren eraginez, katoliko egin zen. Apirilaren 28an hil da Toulouse-n, "Petits Frères de Jésus" direlakoen artean.

Lehendabizi, Bergson-en dizipulu izan zen; gero, Akinoko Tomasena.

Bere bizitzan, bere emazte Raïssak zerikusi handia izan zuen.

Lehendabizi, 1914ean, filosofia modernoa irakatsi zuen Parisen, Institut Catholique delakoan. Gero, 1932an, Kanadara deitu zuten, eta USA-ra.

Maurras-en mugimenduari atxiki zitzaion lehendabizi. Mugimendu konterbadoreari alegia. Baina, Maurras-en konterbadurismoak Eliza Estatuaren tresna egiten zuela konturatu zen, eta harekiko loturak hautsi egin zituen berehala Maritain-ek. Hain zuzen, XI Pio L'Action Française kondenatu zuten, Maurras-ek alde batetik jo zuten (Maurras gizon logikoa izan zen: Eliza tresnatzat hartzen zuenak, kasorik ez zion egin Aita Sainduaren gaitzespenari), eta Maritain-ek bestetik. Izan ere, 1927an "La Primauté du spirituel" ("Izpiritu arazoaren aintzindaritzatza") idatzi zuenak, ez zezakeen, ez erlijioa ordena politikoa morroitzat har, ez Aita Sainduaren gaitzespenaz fi egin. Aldiz, Maritain-ek, izpiritu arazoaren aintzindaritzatza aitortzen du, eta funtsez kristau litzakeen politika definitzen saiatzen da.

Dudarik gabe, Maritain-en influentziarik nagusi-ena, politiko-sozial arloa izan da. Jakiña, ez du onartzen komunismoa. Sozialismoa bera ere ez: atea den neurrian ezezik, gizakiaz ikusmodu okerra bide duelako ere muzin egiten dio. Maritain-ek proposatzen duen gizarte irudia, "humanismo orokarra" ("humanisme intégral") da. Titulo horretaz beraz, hots, "L'humanisme intégral" izenaz, liburua bat eman zuen 1936an. Izpiritu maila eta mundutar maila arras desberdinak direla, dio; baina ezin berezikoak. Mundu honetako gauza eta arazoetaz jardutean, kristautasuna kontuan ez hartzea, Jainkoa eta Kristo alde batera uztea, nork bere burua erdipi egitea dela, dio. Horrez gero, kristaua, izpiritu mailan, kristau denez, kristau bezala ("en tant que chrétien") jardungo da; mundu honetako gauzen mailan, berriz, kristauki ("en chrétien") jardungo da. "Kristauak ez damaio bere arima munduari. Baina mundura joan behar du; munduari hitz egin behar dio, munduan egon behar du, munduaren sakonenean egon ere; Jainkoaren lekuko bezala ezezik, munduko bere egin-kizuna kristauki burutzeko ere bai, eta munduko orainaldiko bizi Jainkoarengana aurreratzeko".

Hori ageri den arazo, beraz, fedearen eta mundutar errealitateen arteko erlazioa da; Elizaren eta munduaren artekoa.

Maritain-ek bere teoria horrekin pauso handi bat eman zuen. Maurras-en bidea ezezik, aspaldidanik nagusi zen ikuskera sakratua utzi egiten du. XX mendearen bigarren laurdenean ondorio handiak izan zituen dotrina horrek.

Lehenengo mundu-ikuskeran hartan, lurralde errealitateak ez du inongo autonomiarik. Errealitate batek, Eliza hartaz baliatzen den neurrian bakarrik du baliorik. Mundutar ordenak beste mamirik ez du: Elizarentzat baliagarri izan. Munduko historiak ez du inportantziarik berez. Lurreko gora-beheretan lan-egiteak ez du beste arazoirik: zuzen-zuzenean Elizari lagundu. (Ikus, arazo honetaz, laboriki emana, Gustavo Gutierrez, Teología de la liberación, 83. orritik aurrera).


Maritain-ek beste ikuskera baten oinarriak ezartzen ditu. Mundu honetan lan-egitearen arazoa, ez da zuzen-zuzenean, arazo erlijioa, gizarte zuzen bat egitea baizik. Horrela, mundutar arazoaren autonomia baieztatzen da. Elizaren aurrean, Elizak ez du zerikusirik hesparru horretan. Baina, hemen ere gakoak: gizarte horrek kristau printzipioz zuzendua behar du izan. Dena den, laikoari eginkizun bat ezagutzen zaio. Eta hori, "en chrétien" eta "en tant que chrétien" delake berezketaz.

Dudarik ez dago. Maritain-ek urrats handia egin du. Baina, dualismoan geratu da. Ez da, gaur bertan, gauza erraza (posiblea ote?) fedearen eta gizabitutzaren arteko erlazioa definitzea; fedearen eta errealitate sozialaren artekoa; fedearen eta ekiniza politikoa artekoa. Hau da: Jainkoaren erreinua eta munduko errealitatearen artekoa. Baina, dena den, Maritain-i hau falta zaio: Jesukristoren Jainkoaren eta gizon-emakumeen historien arteko lotura; Jainkoa gizakiaren, honen historian bertan agertzen delakoa ikustea. II Batikanoaz gero, batez ere, Maritain atzera samar geratu da.

Halere, Maritain-i, "en chrétien" jarduteak, giza-bizitzaren sozial mailaz kontzientzia hartzen lagundu zion. Frantziako askapen-gerran, XXIII Joane adierazi baino lehen, beharrezko iritzi zion komunista, sozialista eta kristauak bat-egitea zapaltzaileen aurka. (Maritain-ek baino lehenago, baina inondik ere haren printzipioetan oinarriturik, gure arteko askok ikusi zuen hori; esan dezagun hau, gure aurretik borroka egin zuten, eta gaur, zenbaiten lumenak zentzugabeki beztu nahi lituenean ohoretan). XII Pio ez zetorren bat Maritain-en pentsamoldearekin (Lehen aitatu ditudan gure artekoenarekin ere ez zen bat etorri lehentxeago, Aita Saindu egin baino lehentxeago).

Maritain, gaur, atzera samar genduen. Badirudi, gorputzez zaharturik itzali den dezalaxe, izpirituz ere zaharturik dagoela, hautsez beterik, liburutegi zaharretan tolestaturik.

Halere, honetan nago. Ez litzakeela alferrikako, hautsetik garbiturik, haren bidea gure artean berritzateza. Zeren, askotan, garbi nabari da, Maritain-ek gogor finkatutakoan baino aintzagoko mailan dabilela jende asko. Oraino bai bait da "apaizak dabilela jende asko. Oraino bai bait da "mi-politikarik ez", hitzaldietan "hori politika da", "mi-



Jazques Maritain

tinak entzutera etorri ahal gara?", "eginbehar barkarra, arima salbatzea", e.a. dioenik.

Horretan ere, halaz gutziz, gauza hitxi bat nabari da. Zorionez, ideia mailan norberak defenditzen duena alde batera utzia, praktikan buru-belarri munduko borrokan ari ohi bait gara. Esaterako, nor Batikanoa baino politikariago? Baina, zoritzarrez, ideia maila eta praktika maila ez egokitzeagatik, "ezarri-riko ordenaren" eusgarri gertatu ohi da halakoa. Inongo oztoporik ez gobernu zapaltzaileekin diplomazia harremanetan jarduteko. Preso batzuen gurasoak hartzea denean, partidismoa alde batera utzi behar da esaten da. Behereko mugimenduengandiko eraginek aske izan behar du Elizak. Bitartean...

Askotan, Maritain heldu zeneko puntua bera ere ez da barruntatu. Hori barruntatu denean, horretan geratu. Ez genezake amets gehiegi egin Maritain gaitzua izan delakoz.

Maritain zahartzea itzali zaigu. Halere, bere emaztea hiltzean, Toulouse-ra, "Petits Frères de Jésus" direlakoetara erretiratu zenak, ezer gutxi zuen galtzekorik Elizan ageri diren bide berriekin. Problema ez da Maritain-en kasua, zer galtzeko asko dutenena baizik. Maritain-i, egizalatasunak eta giza-mugatasunak eutsi zioten azken-aurreko mailan Maritain, itzali, zahartzea bai, zaharkitua ez, itzali zaigu.

AMUNSA

## Sta. Mariako Eliza Basilika bihurtu edo Restaurazioko giroan sartu...

Ez da makala izan nere arridura egun auetan Sta. Mariako Eliza Basilika bihurtu nahian zebiltzala eta azkenean iritxi dutela jakin dudanean.

Nere begiek ez zuten ikusi nahi begien bistan zegoena: egunkarietako notizia, alegia. Maiatzaren 31an, Nuntzio eta guzti, Basilika izendatuko omen dute Donostiako Eliz ederrena.

Orretarako bederatziru bat gertatu behar zen, dena lege egin zedin. Eta izlari trebetu eta jakintsuek itzeringo dute Ama Birjiñaren goraltzak aipatuaz. Erromatik bertatik etorritako izlariak izango dituzte beren artean.

—oO—

Ez nauze Eliz-Historian jakintsu, eta orregatik ez dakit Basilikak izan zuten kristau sena eta kristau egokitasuna norainokoa zen.

Baiñan alako burutaldi bat datorrit «geroagoko» gauza ez ote den, eta kristau iturrietatik urrun ez ote dagoen...

Norbaitek esango du: Loiolan eta Aranzazun Basilikak izanik, zergatik ez Donostian, alako Eliz ederra dalarik?

Zergatik? 1973 garren urtean bizi gertalako.

Ez apaizoi eta, nik ala uste dut behintzat, ez sekularrei ez zaigu batere ajolarik Donostiako Sta. Maria Basilika egitea.

Baiñan norbaitek badu edo badute, asmo ori. Zein ote dira? Ez dut pentsatu nahi Gotzaiak direnik. Orrela balitz...

Ezin dira konpondu... Eliza berri egin behar dela... gazteek behar dutela Elizaren esan nahia ulertu... Eliza «etxea» ez dela... eliz-aldaketei begi onez begiratu behar diegula, beharrezkoak direla esan, idatzi eta gero orrelako «montajeak» preparatu.

Ez dut uste bere buruko «sustantzia grisa» orrelako gauzetan gaitzen dutenik gure gotzaiak. Beste zerbaitez zer pentsatu eta zertaz kezkatu ez bagenu bezala!

—oO—

Gotzai ala gotzai ez, bada or goialdean orrelako gauza aurrera ateratzen saiatzen den gizonik, talderik.

Aukera izan ezker, egun auetan Toledon dabilkiten Fatimako Ama Birjiña ere ekarriko lukeenik.

Nere ustez badu gertakizun onek Restaurazio usai bat. Aurrera egin beharrean, ez geldirik egon, atzera egiten dutenen talderen batek badu agintea gure Eliz Barrutian, bestela nik ez dut konprenitzen orrelako joerarik.

Barka bezait irakurleak baiña ezin naiz atera nere arridura onetatik.

Zer irabazten dute Basilika egin da eta gainera Nuntzio eta guzti?

Gaur egun zer esan nahi du Eliza bat Basilika egiteak eta orretarako behar diren gauzetaz jendea preokupatzeak?

Ez ote da izango «lehengoari» eusteko grifa eta begiz eta bihotzez aurrera begiratzeko beldurra?

Juan Jose Goenaga

## SABIN BARRUETABEÑA, LIZENTZIADUN BERRIA

Hasikinaren ahogozua duen albiste dugu gaur emateko. Pozik eman ere gure senide euskalduneri.

Joan den apirilaren 13an, Gasteizko Teologia Ikasgaur, euskeraz eginitako tesilana defenditu zuen euskualeudun gazte biki batek. Defentsa bera ere euskeraz egin zuen.

Lizentziadun berriaren izena, Sabin Barrietabeña, Bizkaiko Mallabian jaioa. Pasiotar fraidea duzu.

Haren azterlanaren izenburua: «Ezkongabeta, Ezkontza ta sendia Basilio santuaren ariz».

Presaka bada ere, elkarrizketa labor bat izan dugu Sabin lagun jatorrekin. Hona hemen gure solaldariaren zenbait puntu.

ZENBAT ORRIALDE ZETIK HIRE TESI-LANAK?

Aurrenetik gehiago zetian, askozak gehiago. Azkenik, kristau tamaina batean sarturik, 220 baka-rik.

NOR IZAN DUK IRAKASLE ZUZENDARIA?

Alde batetik, aukera gehiegirik ere ez huan zoritzarrez eta, bestetik, lan eragile purrukua dela jakin arren, Eliz-gurasoei buruz gutxi bezela gaia menderatzen duen bat aukeratu nian: Oñatibia eta Audelata-iar Iñaki.

GAIAREN HARI NAGUSIAK?

Azaletikan begiratura, nere lanak hiru alderdi zetik: Ezkongabeta, ezkontza ta sendia. Sakonagora begiratzen bazaio, oster, bat baka-rra bi txostenekin: sendia ta yoputza esklabutza. Lehen hitz hori zaharra eta galdua bezela eduki badiazu ere, ideia hori adierazteko premiazkoa iruditzen zaidak.

Hari nagusia hauxe duk: Elizak legearen babesa iritxi zuenean, martiri izateak, heriotzez sinismena aitortzeak, indarra galdu zian. Orduan, eliz-arteak eta pentsalariak bide berriak urratu beharrean gertatu hituen. Eta, beti gerta ohi dena, batzuek bide hestura jo ziten. Hauen buru, Sebaste-ko Eustazio. Hoen ustez, kristau jatorrak ezkongabea izan behar dik. Jobinonok beste muturreraino jo zian. Kristauk ezkongaduak izan behar ziren derrior. Hau ere, bestea bezela, fraidea huan.

Eliz-gurasoek, berriz, bide berriak urratzerakoan, bata eta bestea azeratu behar. Basilio, beste askoren antzera, ezkongabeta onartu arren, ezkontza ere kristau bide jator bezela hartu eta zaitu zian. Eta hori, ezkontza eta ezkongabeta buruzko lan osorik ez duelarik. Ezkongabeta miresgarri jotzen dik, aukera guztiak begien aurrean edukirik, bide hestu hori onartzen denean. Ezkontza ere miresgarri, ezkontideen artean benetako elkartasunik denean...

Hortik aurrera, nahiz eta Basilio begi onez ez ikusi gainontzeko ezkontzak, oben-ordain bat beteaz, legezko jotzen dizkik... Ezkontza haragizko pekatuz emakumeak zikintzen badu, arbutatu egin behar dik senarrak eta berriro ezkontze-ko bideak irikita zeduzkak. Emakumeak, berriz, ez dik beste horenbeste egiteko eskubiderik. Basilio, biak berdian ikusten dituela-ko, berdinean jarri nahi litzike; baina ez Biblia eta ez Kapadoziako eliz-ohituretan ez dik horretarako oinarri ikusten... Gainontzean, sendiari buruzko-

etan eta, ez dik aparteko gauzarik.

ZER KALIFIKAZIO EMAN DIATE?

Kalifikazioari buruz, lotsa ere ematen zidak ezer esateak, hutsune nabarmenak izaten bait zizkioat; baina... onena eman zidatek: hamar.

DEFENTSAKO EKINALDIA ZER MODUZ?

Defentsari buruzkoak ez ditek zer esan haundirik. Lehenik, nere lanaren laburpen bat irakurri nian. Azkar-azkar irakurri, ordu-erdiko saioa. Tribunal osatzen zutenak: On Joxe Zunuzegi, Teologia Fakultadeko dekanoa (tolosarra); Iñaki Oñatibia (oiartzarra) eta Antonio Mari Artola (Bilbonatarra).

Nere lana bukatu nuenean, zorion hitzak entzun nizkian erruz. Aita Artolak hutsune txiki batzuz izendatu zizkidan, baina ttipiak benetan. Haundiagoak ikusten nizkian neronek.

Joan zen jendeari buruz, ez zekiat zer esan ere. Berrogeita hamarren bat edo izango hituen. Dena den, lehenengo lana zelako edota Basiliari buruz osogutxi idatzi ta azeratu delako, lan erraza izan huan. Aurrera jarraitzeko ere ez zaidak gogorik falta. Ikusiko diagu.

—oO—

Bejondeiala, Sabin. Zorionak, baita, Gasteizko Teologia Fakultade-ari ere. Eta, lerro artean irakur-zen dakienak, badauka non ikasi-rik.

JOXE LIZARRALDE

bergara

BERROIA ETA AIALA'TAR  
LUIS

Aurtengo otsailaren lehenengo egunetan joan zitzaigun Jaunaren besoetara, Berroia'tar Luis.

Bergara eta inguruko erriek ondo ezagutzen zuten gizon jator au, batez ere langille zarrek ba bere bizitzako azken urteak auen zarsariak geitzen alegindu zalako.

Eguneko aldizkarietan agertu zituari bere luma trebeakin ainbat eskubide eta lortu zuana gutxi ez-bazan ere, geitzea; baiñan au ez da dana, berak egin zuen lana ezta gelditzen emen ba Madril aldian ere jakin zuten onen ikustaldian arabera; ezagun zan bere illetan zenbait esker on agertzen zioten azken agurra ematean.

Langilleek geranez, eusko langilleek geranez, lerro auker arlo ortara datoz.

Gaur egunez langilleen zarsaria, gure iritziz-aurrez erabaki bear da. Gure erri ontan «Convenio Colectivo» edo ta «Caja de Compensación» sortuaz erabaki da arlo au baiñan bi lantegik bakarrik, auker dira Union Cerrajería S.A. eta Textil Lasagabaster S.L. beste lantegibatek bertako langilleei dei egin zioten au erabakitzeako asmoetan baiñan langilleek ez zuten onartu.

Langilleek zartzar egoki baten eskubide guziak ditu; ez da gauerdiko autzaren eztula guk ematen edo kentzen dizkiguten zenbait diru, baiñan legeak orrela jarrita daukelako ematen duen puxkakari igar bear.

Irakurleak daki nolako zarsariakin dauden zenbait langille, egia, lotsa eta ikara ematen du onetaz gogoratzea bakarrik.

«El Diario Vasco» aldizkarian irakurtzen genduan epaillaren 25an Manuel Maria Escudero jaunaren azalpen au: «En España, las jubilaciones laborales se ajustarán a los salarios reales en 1977».

Eskerrak agertzen diogu Escudero jaunari langilleen alde egiten duen lanagaitik, baiñan aldizkarietan eta lapikoan sartzen dana agertzen da, eta bitartean zer? Ori orrela izango dan ziurtasunik bai aldago?

Urte batzuek daramazkigu lana eta irabaziaz erruz sortzen direla, lantegietako nagusiek eta baita agintariek saiatu bear luteke arlo astun, mingarri eta lotsagarri au erabakitzen, eta langilleen esker ona jasoko luteke.

ERIOITZA

Joan dan igandean, illak 13, ospatu ziran Santa Mariñeko eleiz nagusian, Pikazarri eta Larrañaga'tar Migel'en ill-elizkigunak, 87 urterekin aldendu zaigu Jaunaren besoetara Bizkaiko Getxoko Ondarrean.

Pikazarri, Santa Mariñe eleiz nagusiko abeslaria zan.

Urrillaren 6an, 1963an, omenaldi bat eskeñi zieten ango abeslari zarrei, auker ziran: Gallastegi'tar Martin, Juaristi'tar Kalixto, Gallastegi'tar Bitor eta Pikazarri'tar Migel.

Bizkaian bizi izanarren erritar jator jator genduan. San Marzialean an izango genduan urteak izanarren, bertako letañian, Paskuetan zer esanik ez.

Buru ona izanik, orain dala 70 urteko gertaerako xeetasun guziaz gogoratzen zituari. Alako gertaera au berari jasoa da.

Bergaran, Paskuak ziran, eta jai ontako ikuskizunik nagusiena, esku partidua, baiñan alako jokaleri sendi artean ezbearra sortu omen zitzaion eta onek ez jokatzean, agur ba, jai.


Antolatzalleek jo zuen inguruko errietara Arrasate, Oñati, Soraluze, Eibar, salburdiagaz, eta baita arkitu ere pelotari pare bat.

Estu eta larri, orduak gainean ziralako, dei egin zioten atabalarari; ona emen erriko ertz guzietan zabaldutako berria:


«Hoy, a las once, en el frontón gran partido.

Kaiku y Xaiku  
contra  
Xaguzar Hermanos  
Si llueve por la tarde, se jugará por la mañana».


Goian bego Pikazarri'tar Migel.



Orio



Irun



Oiartzun



Usurbil

elgoibar

EIBARKO AIZEAK

Eibarren bada beste gauza askoren artean egun dela urte batzuek sortu zen Arrate Kultura eta Jolas Elkartearen izenak berak dion bezaia, kultura eta ekintzak eramana eta jolas edo egon toki egokia hala nahi zuten guzientzat.

Kultura alorrean, baditu beste batzuen artean, sail bereziak, hitzaldiak antolatzeak eta euskal kultura saila izenekoa alegia.

Azken urte hauetan ikusten zenez, sail hauen programak eta jokaera ikusita, bazirudian sail hauen arduradunen pentsaera eta jokaera arrotza zela. Arrate Kultura Elkartearen ezerezeraino ekarri duten arte. Eta krisi gogor honetan aldaketa sakonak izan omen dira bere barnean. Eta aldaketa honen ondorioak, laister nabait ditugu, eskeñi dizkiguten egitarauetan, Eskuartearen ere badituzte plan interesgarriak laiste rager-arazteko, entzun dugunez.

Zorionak mutillak eta argi ibili Eibartar zaharregandik jaso duzuten soleria galdu barik eta hobetzen saiatuaz, horretarako kapazitatea hor badagok-eta.

AUBIXAKO TALDEA

Urte bat inguru iragan da guraso eta gazte kezkatari bat-edo-besteri baserrirenbatez jabetzea bururatu zitzaizela. Ikastolako haurrak eta udaran egonaldi batzuek egin us-tetan.

Mendiko etxe honetaz zuten helburua zera da; haurrak eta udaran egonaldi batzuek eginaz, ikastolako lanaren osagarri izateaz gainera, mutikoak elkarrekin egun batzuek bizi ahal izateak esperientzia onuragarria izango dutela.

Lehen urratsak ematea zail zen hemen ere denean legez, baina hau bururatu zitzaizenei ez zitzaion gauza bertan behera uzteko asmotan sortu eta horra hor nun baserria topatu ere Aubixa baserria, ederra berau. Eta honela gurasoie agertu eta jakinerazi zieten honen garrantzia mutikoen ezierarako. Guraso talde bat bai jabetu ere, ikastolako alorrean sail berezi bat osatuaz.

Geroztik, ikustekoa da hemengo arrakasta. Paper biltze kanpaina bat antolatu dute dirua ateratzeko eta hor ari dira jo-etake, astean-astean kamiokarak bilduaz. Gazte talde batzuek ere laguntzen dute lan neketsu honetan. Luzaro jarraitzea zail izango da paper biltze hontan; neketsuegia izango litzake noski; baina egiten ari dan lana hor dago herri guziaren aurrean.

Baserrian ere ekin diote trebe lanari. Udara alderako zerbaitekutxeko asmoa bai dute. Baita ere martxan jartzeako beharko den antolamendu eta eraketak aztertzen hasiak dire.

Eredugarria benetan gizon talde honen ekintza, herrigintza sail honetan. Herrigintza diot, ikastolako haurren ezieran, egin genezaken guzia herrigintza barruan, lanik interesgarrienetako bat baita. Gure herria denok egin behar dugu, ba-koitzak ahal duen eta egokien duen sail eta neurrian, baina denontzat dago tokia eta lana, denok erantzun behar egoerari.

Zorionak Aubixako taldeari, gaurko gizarteak ezarria digun zenbait lotura autsi eta herrigintza sail honi kementsu ekin diotelako.

Badakigu, beste zenbait guraso eta gaztek, beren bihotzean daramakiten zenbait kezka-herrimin eta sendimendu, baina herri ekintzatit at bizi dira; entzun dezaigun poetari:

Zeuk zer nahi duzun  
ondo dakizuna  
Zertan zaude patxara hortan  
eskuak lotuta  
Etxekoak ez diren hoi  
limosmaren zai.

Zu malko lodiz  
nagarrez zaudena  
Mugitzeko beldurrez  
etxean sartuta  
Aitxako ahal duzu burua  
jabetasunez jabetasunez  
jabetasunez beteta.

Beste Etxe-petar bat

deustu

ANTHROPOLOGI TA ARKHEOLOGI  
MINTEGI BERRI BAT

1971-72ko kursoan Deustuko Filosofia ta Letretako Fakultateak eraturik, Historiako espezialitatearen barruan, lehen aldiz, Arkheologia erakutsi zen, Juan Maria Apellaniz jauna irakasle zelarik.

Klasen jarraipen praktikoko bat legez, joan zen Uztailan Galdamesko Arenaza hartuñan arkheologi azterketak hasi ziren, Dirección General de Bellas Artes delakoari esker eta J. M. Apellaniz eta J. Al-tuna, paleontologo famatuaren zuzendaritzapean Deustuko, Bizkaiko Seminario Diocesano eta Madrideko ikasle talde bat hara joan zen lan egin eta ikasteko.

Ikaslearen artean sortutako gogoaren fruitu bezala, Historiako azken urtea egiten ari diren lauk Arkheologi arloan aurkitu zituzten beren Lizenziaturako tesis-gaiak.

Euskal Herriko lehen-historia aztertzeko aukeraturako aztarnategiak hauek izan dira: Bizkaian; Atxeta (Forua), Belinkoba (Abadiño), eta Lumentxa (Lekeitio); Araban, «el Montico de Txarratu».

Aldiari dagokionez, Bizkaiko aztarnategietan Madaleine aldia aztertuko dugu, eta Arabakoan Mesolitos delakoa.

Bizkaiko Histori Museoan eta Arabako Museo Provintzialean daude erabili ditugun arkheologi-gaiak.

Beste aldetik, kurso honetan Historia espezialitatean ematen den Anthropologia Cultural deritzan asignatura ere Apellaniz jaunak erakutsi du. Asignatura hau irakasle honak erakusten zuen Ciencias Sociales eta Teologian.

Bi zientzia mota hauetan interes handi bat sortu dela-ta, Unibertsitateari Ant. eta Ark. ikasteko mintegi berezi bat eskatu zitzaion. Historiako espezialitatearen zuzendaritari eta Fakultateko dekanuari esker, iazko Abenduaz geroztik Mintegi berri bat dugu Deustuan.

Esan behar da, gainera, Anthropologian azterketak egiteko beste talde bat ere sortu dela. Arle honetan aukeraturiko tesina-gaia zera da: Bizkaiko herri bateko famili-egituraren eboluzioa eztertzea anthropologyi alderdilik ikusita.

III Anthropologi Astea dela bide Julio Caro Barojarekin elkar-hizketatik izateko era izan genduan. Euskal Herriko eta Bizkaiko anthropologyi ikasteko proposatu zituari ezterketa-bideak oso egokiak iruditu zitzaizkigun.

Esanen dugu baita ere gure Mintegiko arkheologi-azterketak jarraitzen direla eta, hain zuzen, datorren Aste Santuan Burgos iparraldeko herrixka batean, Atapuerca-ko aztarnategi famatuaren ekingo diogula gure lanari. Eta Uztailan berriz Galdamesen.

Eta amaitzeke, aipamen berezi bat egin nahi, genduke Bizkaia aldean Ethniker deritzan beste talde baten lanari buruz. Talde honen helburua Bizkaiko ethnographi istudioa da. Astero biltzen gara alkarrekin gure Anthropologi Mintegian, gure lanean sortzen zaizkigun mila arazoei buruz mintzatzeko.

Azken belada honetan Bizkaiko Diputazioko Espeleologi taldearekin harremanak izan ditugu.

Eta besterik ez. Gauza bat bakarrrik gehitu beharko genduke: gure ateak zabalik daudela interes duen edozein ikasleentzat eta gure aldetik, Euskal Herrian arlo hauetan lanean ari diren beste talde batzuekin ere harremanak izan nahi genituzke. Gure zuzenbidea hauxe da:

Universidad de Deusto.  
Facultad de Filosofía y Letras.  
—Seminario de Antropología—  
Apartado I  
BILBAO

ROMAN BASURTO

galdakano

NOIZ ARTE?

«Bizi garen mundu ontan, gizonak gizon izateko jokatzen gauden

mundu ontan, ba dira giro ezberdinetara jokatzen dutenak eta ezertara jokatzen ez dutenak ere. Baina, tamalez, ba dira ere, euren joko garbirik erabili ez, eta besteetan lana zapaltzen edo zapaldu naian dabilzanak. Eta, nola ez, Galdakano ere aurkitzen dira aurtariko ainbat gizon.

Jarraitu baño leen, esango dizuet oraintsuko larunbata batean (Orrillaren 12'n), eta ANDEA MARRI Eusko Folklore Taldeak antolatutarik, jaialdi eder bat ospatu zela «Rejio» antzokian. Egitarauan Andra Mari, euskal dantza bereziekin, eta, nere ustez, Euskal Herriko abeslariarik aundientariko bat, BENITO LERTXUNDI. Iru bat urte ba ziran Galdakano ez zela ospatzen olako jaialdirik eta erria benetan poztu zen.


Baina lehen esan dedan lez, ba dira euskal giroan lan on bat egiteko ez dutenak balio eta besteetan lana zapaldu eta zikindu arte gauza onik ez dutenak. Gizon auker, azken urte auetan ez dute «boikotak» besterik egin, baina beti euskal-jai eta jaialdi guzietari bakarrik. Au al da euskal giro berrria? Andra Mari'ren jaialdiari ere «boikot» egin bear zioten eta benetan egin zioten bai. Baina ez ziran or gelditu: Euren boikota etzen naiko eta erriko euskaldun zintzo guzietari burutik kentzen asi ziran jaialdi ortara joateko gogo, Jainkoak daki zenbat gezur esanaz. Erritar batek esan zidan, berak boikota egin bear zela entzun zuala eta orregatik jaialdira etzela joan. Galdetu nionean zer-gatik egin bear ote zen boikot ori, berak ez zekiala erantzun zidan. Eta olakoak zenbat? ARGI GAUDE!

Ez dago Euskal Herrian indarririk jendemodu kaltegarri au zapaltzeko eta ixiltzeko? Ze euskaldun dira erriaren gogoko jaiari «boikot» egiten diotenak?

Gizon opetsu batek esaten zuan oitura dela gure errian, beste errietako gizon batzuk euskaldun bezela onartzea, Euskal Herriagatik zerbaitegiten dutenean. Beste nazio batzuk, leen agertu ditugun bezelako semeek gorrotz aldatsen dituzte. Ze erabaki artu bear litzake gure errian, gizon kaltegarri auker ixiltzeko? Arrazoia eukan, olako gizonak makil aundi batekin buruan jotzea merezi dutela esan zuanak.

Zorionez, ba daude gure errian itsuak ez direnak ere, eta «SASI-ERRIZALE» oiek ezagutzen dituztenak. Orrela, jaialdi eder bat ospatu genuen eta urrengoa noiz izango ote dan gogoan degu».

GALDAKAOAR BATEK



Eibar

saraluze

IKASTOLAREN BATZAR NAGUSIA

Soraluzeko "Ametza"koek egin zuten ikastolako batzar nagusia, zelan bazkide edo sozio anitz etzen joan, hant azaldu zituzten arazoak eta elkarte honek egingo lanen berri aipatuak dizkiuzuegu ahal den laburren.

Diruaren aldetik aurten politto joan dirade gantzka, laguntasun anitz jaso bai dute herriaren aldetik batipat hileroko erriren bidiez eta antolatzen zituzten jaialdieri esker, gero arazo ontan asko lagundu diote banka-etxeak eta lantegiak.

Hau poztutzeko gauza da, ikastolenganako ardura ba dagola ikusten delako. Arazo zailenetako gelena dute, amten udaletxeari esker hiru gela berri badauzkate, baina arazo hau oraindik ez tankote erabakia zeran datorren urtean bostgarren ikastorea emateko beste gela baten beharrik arkitzen dira eta kontuan eduki behar dugu Errege-etxea noizbaiten bota egin behar dutela.

Beste ikastola batzuekin batera estadiuari laguntasuna eskatu diote baina oraindik tramitazio guztia Donostian dago eta ez tankote laguntasun hau noiz etor leikean. Gauza bat eduki behar dugu kontuan: ikastolak aurrera eramatea nahi baldin badugu, dneok elkartu egin behar gara beste zaila izanena da ikastola pribatuak aurreruntz joan ditezun; estadiuaren laguntasunaren zain ez gaitzen egon baik eta obe da herri guztiaren laguntasunarekin ikastolak aurrera ateratzea.

Hemengo ikastolari dagokion beste arazo bat hauxe dugu: titulua duten andereñoak ezin aurkitzea, kanpotik titulua duten andereñoak ekartzen zituzten baina denbora gutti irauten zuten eta nahiago dute herriko andereñoak, egokiagoak direlako.

Urtean behin batzar nagusi bat egiten dute eta bi hilebetetik bi hilebetera ikastolan dabiltzen haurren gurasoak eta andereñoak biltzen dira, zer esanik eztaio baina bietara oso guraso gutti joaten ziren, tamalgarria benetan. Diruaren aldetik hain ondo erantzuten dakien herri bat, ikastolaren gainean direnean batzarrak eta hitzaldiak orduan porrot egiten du herri horrek.

Azkenik ikastolari lagundu dioten guztiei eskerrak emanaz amaitu zen batzar nagusi hau.

ZAHAR SARIDUNEN EGUNA

Urtero bezala ohitura on bati jarraituz, hil honen 26'an zahar saridunen eguna ospatuko dugu.

Egun hau ospatzen da herriko elkarteeri esker et adenen artean egitarau hau ateratu digute:

Arratsaldeko 4'tan txistularien eta dantzarien kalejira.

Bostetan Ana Deunaren eleizan meza izanen da hildako zahar saridunen alde.

Seiretan enparantza berrian jaialdi bat.

Zazpi l'erdietan Ekonomatoan lagun arteko afaria. Urteran ba-koitzari sari batzuk emanen dizkiote beren emazteekin eta senitartekoekin goza dezaten.

Hurrengo larunbatean ekainaren 2'an afarira joan ezin izan zuten ikustaldi bat egingen zaie eta sariak ere emanendizkiote.

Hortarako beharrezkoa da "txoko" tabernan izenak ematea.

Tabernetan eta elkarteetan kutxatila batzuk jarrita daude, egun ortako gastuak ordaintzeko; hori dela-ta Soraluzeko herriaren erantzun ona jasotzea itxaroten dugu, gure zaharrak merezi duten mailako omenaldia izan dedin.


txorierri

Txorierri Bilbao inguruan dago. Bilbao haundiak bere arazoak, bizi moldeak, kezak ekarri dausku. Garrantziko ondoren bat dator-


EZKONTZA

Direla egun batzuk, M. Axun kio: gitxiez-pitxiez euskera galduten doa.

Txorierri, alde batetik Lejona, Lezama eta Larrabezua herriekin antolatuta dago, eta bestetik Loju, Sondika, Derio, Zamudio eta Erandio Goikoa. Lau azken hauek lehenago herriak ziran, orain Bil-



Iruñe



Pasaia



Aizarna

baoko hantzueak.

Interesgarria da zelan lau hantzue honek Bilboren zati egin ziren ikustea, iñori itandu barik, iñor informatu barik. Baiña hau ez da dena: Artxandako lurpe bide edo trenaren egoera txarrak sortzen dituen arazoak. Ez ote zen Txorierriko herri guztien alkartasuna egitea hobe izango?

Baiña gatozen geure egitekoa bete dezagun. Txorierriko badu bere nortasuna, badu bere kontzientzia. Horregatik guk ahalegiña egingo dogu beren arazo, baserri eta langilean argi ipinitako, denak jakin deien zein dan gure ibarraren egoera.

Gora Txorierriak, eta hurrengorako berriak.

INAKI AGIRRE

pasai donibane

EZBEHARRAK

Egungo gaitz handienetako bat, ezbeharrak (akzidentea) dugu zelan-tzarrik gabe. Muntu zabalean, barreiatu den «min-bizi» bildugarrria dugu ezbeharrak. Gizonok sortu dugun asmaketa izugarria!; eta zoritxarrez, senda-ezina nonbait. Gero eta gehiago zabaltzen, hedatzen ari bai zaigu.

Direla egun batzuk, berebiziko ezbeharrak izan zuten Xipriano Mancisidor, Jose Mari Legorburu eta Pedro Mari Olaziregi herriko gizon gazteek. Iruñe alderuntz zihoaztelarik, beste auto bati buruz-buru izugarrizko mufurreko hartu zuten. Hilik zorionez ez zen izan; baina, bai horregatik zauriturik (heriturik) gelditu.

Minik haundiña hartu zuena Xipriano adiskidea izan zen. Iruñeko klinika batetan egon ziren zenbait egunetan.

Lehenba lehen sendatzea opa diegu bene-benetan!

GOIZALDI

Hogeita bost urte sortu zela-eta, GOIZALDI Donostiar dantzari taldeak, jaialdi ederrak eta bikainak antolatu izan ditu. Baina, lantxo hontan adierazi nahi duguna zera da, gure ikastolako arduradunek edo erresponsableek jaso duten eskutitza. Izan ere, dantzari talde honek, Gipuzkoako ikastola guzietan hement hartu dugun eskutitza biala bai diete. Hona zer dion eskutitzak laburki: «Ikastolaren alde dirua biltzeko egiten diren jaialdietara joateko prest dago GOIZALDI». Eta aurrerago: «Aldez aurretik ondotoxok dakigu ikastolaren diru problema ez dduzguzuzlazz zezrabazazhd9hE ez dugula erabat erabakiko, baina dena dela geure dantza, txistu, kantu eta euskal giroaz ahal duguntzkoa egiteko prest gaude».

Eskeintza ederra benetan euskal dantzari talde honek egiten diguna. Aurrez aurre har beza gure eskerrik beroena eta gogoan izango dugula eskeintza hau jakin bezate. Bai horixe!

ANTXOKO IKASTOLAREN ALDE

Pasai Antxoko ikastolako ardurdunak ez daude lo zorroan murgidurik halajaina! Azkeneko urte hauetan asmatutako iturria erabili bai dute bere ikastolako zorrak nolabait arintzeko. Iturria xelebratzen baina balio duena, alegia, R. Sociedad eta Bilbao-ko garai bateko jokariak beren artean futbol partidua jokatzea. Lerro hauek idazten ari galararik, ez dakigu nolako diru mordoia jasoko ote zuten; baina, suerte ona izan dezatela opa diegu.

Dena dela, zabalkunde edo propaganda exkaxa egin dutela deritzagu. Edo behintzat, oso estu ibili izan direla egunekin, alegia egun gutxitan egin dutela zabalkundeak. Etxabe Bancisidor eta Juan Antonio Rodriguez herritar adiskideok ezkondu ziren. Juan A. denok dakigunez, Donibane esku-baloiko jokari trebea dugu. Zorionak bioi!

INALURRETAK

mutriku

PELLO JAUNAREN OROIMENEZ

Ekainaren lendarizko igandean, illak 3, Andre Mari Jasokundearen Eliz Nagusian, ospatuko da Pello

jauna zanaren irugarren urteurreneko elizkizuna. Kuziok dakigun bezala, 1970eko Ekainaren 6an, utzi zuen ludi au beti-betiko, bitziza obeagora joateko. Iru urte guregan dik aldandu zala, eta ala ere ezin iñolaz aaztu! Nola aaztu ainbeste maite eta ain geure-geurea zan apaiz jaun agurgarri ura? Pello jaun, guzian begi-begikoa izan zan, bere biotz errukior eta bere izaera apal arekin, erritar guzian biotzak bereganatu zituen. Euskaltzale egiazkoa zanez euskerari benetako maitasun zion, eta asiera-asieratik ZERUKO ARGIAren irakurle eta laguntzaile zintzoa izan zan. Au dala-ta berritzen diegu gure samin-agurra bere sendikoei eta baita Z. ARGIAren irakurle eta erritar guziei dei egiten diegu bere arimaren alde egingo dan elizkizunera. Berak zerutik bedeinka gaitzala.

—o0o—

Ogei ta lau bat urte inguru Mutrikun igaro zuan, Kristoren alde lan egiteko beti gerturik zeguan. Pobretasunez bizi izan zan pobrea maite baitzuan Karidadea egiaz sarri kalean edo auzuan, Orain zeruan pozikan dago betiketotasun osuan.

IBILLALDI NEURTUA

Igaro zan igandean, Debako «Burdin-Kurutz», Ondarroako «Aurrera» eta Motrikuko «Buru-mendi» mendizale taldeak, oi-ez-belakoa Ibillaldi Neurtua ospatu zuten eguraldi ederraren laguntzaz. Goiz-goi-zetik «JAUJA» mendizalez inguraturik arkitzen zan. Emertziti urte-tik gorako neska-mutil gazte bikainak, guztiak mendirako zaletasunez betterik, noiz aterako zai.

Berrogei ziran bertan parte artu zuten taldeak, talde bakoitza iru ibilitariz osatuaz. Leenengo taldea goizeko zortzietan atera zan, talde-taldera mifutuko tartea utzirik. Ona emen egin zuten ibillaldia: Mutrikutik atera, Sta. Elena, Sta. Kutz, Armitza, Jaungoiko-mendi, Intxurrieta, Mendaro, emen ordu betekos atsenaldia, bazkaldu ta a b ar, Berasaluze, Garaituz, Arraun, Pagatza, Arriola eta Deba, emen Ibillaldi Neurtuari bukaera emanaz.

Urrengoko argitara aldian azalduko ditugu irabazleen izenak, beste gora-beera guzian berri emanaz.

ASTEKO BERRIAK

—Maiatzaren 18an, bere urtebetzea ospatu zuten Andonegitar Maritxu «Lekondek» Z. ARGIAko idazle eta laguntzaile purrukatuak. Zorionak.

—Lizarditar Jose Juan eta Ituartetar Arantxak, beren leenbiziko aurtxo ederra izan dute.

Baita Elezgaratar Juan Mari eta Galparsorotar Itziarek bigarren alabaxoa. Zorionak guzietan.

—Maiatzaren 19an, Kristo Kalbariokoaren elizatzoon betirako elkartu ziran, Ansorregitar Julian «Olabarrieta» baserriko semea, Astigarrabia ballerako «Agera» baserriko Usatorretar Beatriz neska jatorrekin. Zorionak eta urte askotan elkarrekin izate opa dizuset.

—Ezkontz-deietan arkitzen dira, Ituarte Lizarditar Jose, Elordi Urreizitarr Maria Antoniarenekin.

Txurruka Urbietatar Jose Antonio, Gabilondo Zubizarretatar Maria Karmenekin. Zorionak.

—Giozoko Izarrako antzezleriari or dabiltza, jo ta ke, nekearen beldurrik gabe; erririk-erri eusko-antzerkiak azalduz. Oraindik-orain To-

losan izanak dira; il onen 26an, Urnietan antzeztuko dute, Ekainaren 2an, Elgetan eta 5ean Durangon. Ori, ori! Jarrai aurrera!

ANDONEGITAR Z

lezo

PILDAIN HIL DA

Maiatzaren 7an Las Palmas de Gran Canaria hirian, gerra osteko 30 urtetan bertako gotzai izandako lezoar ospetsua hil zen. 1890. ur-tarrilaren 17an jaio zen.

Aitarien izena Gabriel, Portuko praktikoia; ama Maria Zaplain, maistra; arrebak Teodora, Mercedes eta Maritxu; lehengusu bat, Felix, kartujoa; anaierik ez bide zuten izan. Lehenbizi Zubitxo kalean bizi izan ziren, amak gero eskola ematen zuten etxebizitzan; gero, Goiko Eliz-aurreko etxean, Basilio Serasolak erakitakoa.

Gasteizen egin zen apaiz 1913an, gero berriz bertako kalonje. Errepublikan garaian, Gipuzkoako prokuradore izendatua izan zen Madrileko Gorteetarako, Euskal Herriaren Autonomi-Estatutua baleztatua izan zen garaian, hain zuzen.

Geroztik Canarias-eta bidali zuten eta amaika izerdi-tanta isuri ondoren, hango pobreena bezain pobre hil da, bihotzeko eritasun batez.

Noizean behin etortzen zen bere sorterrira, Don Antonio; azkenik, uste dut, duela hamar edo hamabi urte; koruko tiple ginen orduan eta bere omenez Perossi-ren II Pontifikala kantatu genuela gogoratzen naiz. Meza ondotik, kantariok berekin izan ginen eta noren hiloba ginen adierazirik, ahaideen berri galdetzen zigun.

Hango pobreen etxetan eta fama txarrenetakoetan ere, bere arimaren alde aitagure bat baina gehiago errezzatu direla seguru nago.

Hilaren 9an izan zen ehortzia hiri hartako katedralean, Antiguako Amaren kaperan. Erdal-egunkarietan irakurri dugunez, hamar urtera bere gorpu-hondakinak Lezoartzeko eskatu omen zuten bere arreba Teodorarenekin batera (lehen esan bezala anaierik ez zuten izan).

Horra, herri koxkor honek Euskal Herriari eman dion semerik ospetsuenarikoa atzerrian hil! Jainkoak zerua eman dizaiola.

HANKA-SARTZEA

Apirilaren 15eko Z.A.-n Ikastolako ikasle-gurasoen eta bazkideordekarien artean izandako bilera aipatu nuen eta ordezkerio adierazi didatenez, ez egia zor zaion garbitasunarekin.

«Bileraren gaia, batez ere, Pasai Donibaneko Lizeoa izan zen» idatzi nuen, baina esan zidatenez ez zen hala izan, egungo egoeraren atzerketa baizik; puntu asko ikutu baziren ere, batez ere, gaurko egoera izan zen eta ez Pasai Donibaneko Lizeoa, idatzi nuen bezala, hau besteren artean baizik.

Barkatuko didazutela nago, baina berriak iturritik jasotzen ez ditudan bitartean, beldur naiz horrelakorik maiz gertatuko dela.

Beraz, eta faborez, herriko elkartetako zuzendariak, inoiz aipatzekorik duzutenean (bilerak, hitzaldiak, ibilaldiak, e.b.) adierazten badizkidazute, mila bider eskertuko dizuet.

SISTIAGANEKO PELLOK

Bertsolariak

Maiatzaren 27 an bertsolari guztiak Eibarra Joan beharrak dira Uztapideren Omenaldira eta hortaz Elizondorrek gure jaia atzeratu dugu. Gure festa hon Ekainaren 17 an izango da eta bertsolari ahuek ariko dira: LASARTE, MATTIN, XALBADOR AZPILLAGA Antxitoneko trinketeen arratsaldeko bostetan. Biltzen dena Elizondoko Ikastolarako izango da.

M. IZETA

# ATAUN

## SAN MARTINGO JAIAK

San Martin hauzoko jaiak, azaroaren 11an ospatu izan ohi ziren. Elizak, Martin deunaren eguna ospatzen duela, hain zuzen ere.

Aurten ordea, jakin dugunez, ekainaren 15ean ospatuko dira; eta ondorengoetan ere, hala uste dugu.

Zergatik aldaketa hori? Begira! Azaroan, eguraldi txarra zela bide, deusen gozotasunik gabe ospatzen genituen jai horiek. Eta zuzendu nahi dena horixe da. Beraz, aldaketa horren arrazoiak, eguraldiaren gora-behera da.

Esan digutenez, halere, San Martin hauzoko ez bide du festa gogo handirik. Zeren eta iaz festak automatik ekainera aldatzea nahi zituzten ala ez galdetuaz San Martindarren artean banatu ziren orritxo, gutti erantzun omen zieten. Esan dezagun, haatik, erantzuleetatik gehienek aldaketa onartu egiten zutela.

### SAN ISIDRO EGUNA

Hil honen 16an, San Isidro eguna ospatu zen Ataun San Martinen. Aurten hauzoko hontan ospatzen, herri osoko nekazarien eguna izan zen. Bestalde, datorren urtean San Gregorion ospatuko da, eta 1975ean Aian. Eta era horretan txandaka-ixandaka.

Jai honen berri aurrez ematearik ez dugu izan; eta horregatik, ospatu ondoren gatzokizu gertatuaren berri ematera, irakurle.

Goizeko 11 etan, meza bat izan zen San Martingor parrokian. Meza-emaitza Xabier Zubizarreta, eta hizlari Martin Mendizabal frantziotarra izan ziren.

Ondoren, "etxe-abere" eta igalien sari-ematea.

Igalien sailan: 1go) Juan Aldasoro (350 pezetako saria).

2go) Maria Aldasoro (300 pezetako saria).

3go) Joxe Ramon Agirre (200 pezetako saria).

Beste hiru sari ere, 100 pezetako bakoitza, banatu ziren.

"Etxe-abereen" sailan: 1go) Julia Galparsoro (250 pezetako saria).

Bi sari, bakoitza 125 pezetakoa, Joxe Ramon Agirre eta Maria Aldasorori.

4go) Arantza Aiestaran (100 pezetako saria).

Sari-ematea egin ondoren, herriko "Biktor" jatetxean, nahi zuten herriko nekazarien anaia-arteoko bazkaria. Bertan, Zumarragako Trikitixa eta Zaldibiko Patxi Iraola eta Idiazabalgo Florentino Goiburu bertsolariak tarteko zirelarik; eta alaitzaile, noski!

Gero, ilunabarrean, hauzoko kontsejupean, Zumarragako Trikitixa ospetsuak jo zuen saio alai bat. Kontsejupe ttipia betetzela haurta gaztetxo bildu zen, ta bai dantza-saio batzuegin ere. Nola ez ba mugitu aipaturiko Trikitixa haren humorea eta alaitasuna ikusirik.

Eta bukatzeko, eskerrak eman dizazkiegun herriko nekazarien el-

kargoari; bera izan bait da aipaturiko jaiaren eratzalee. Eskerrak ematen dizkiegu baita, igali ta etxabereen txapelketetan parte hartu nahiz irabazi zuten, guztiei ere.

### HITZALDIA

Maiatzaren 10ean, hitzaldi bat eman zuen gure herritar Joxemiel Barandiaranek. Erabili zuen gaia zera da: "gizonaren eboluzioa". Berak hitzaldia hasi aurretik esan zuen bezala, esan dezagun gure gai oso zabala dela hitzaldi batean eman ahal izateko.

Duela lau mila miloi urtetatik gure egunerarteko eboluzioei gurbegirada bat eman zien gure maixuak. Ene ustez nahiko garbi esplikatzen zizkigun Joxemielek bere esanak, adibide edo exenplu anitz aipatuaz gainera.

Bestalde, zail egiten zitzaion euskaraz gai hori erabiltzea. Nola ez ba! Izan ere, gai horiek beti-beti gatzeleraz edo beste erdararen bidez erabiliak izanzen dituzte hizlariak. Baina saiatu zen arazo hori gainditzeko, ta bai gainditu ere 83 urtetako "gatz" honek.

Hitzaldian barna, sortu ziren zenbait galdera. Eta amaitezakoan, zera esan zigun gure Joxemielek, gutti gora-behera: denoi eskerrak ematen dizkizuet, hainbeste denboran nere hitzaldi aspergarri hau entzuten ixil-ixilik egon zaretelako. Ta zer esan gure jakitun humilari?

Eta bukatzeko esan dezagun, hitzaldi hau San Martingo saloian eta "O.A.R.G.I. TROSKAETA"-k eratua izan zela. Gure eskerrak ematen dizkiogu elkarte honi, lan hori ta azken bolada honetan (menditara irteerak, eta abar) eratu dituen beste guztiengatik.

### VI. IBILALDI NEURTUA

Maiatzaren 27an, San Martinen, VI ibilaldi neurtua izan da. "O.A.R.G.I. TROSKAETA" elkarte langileak eratuta berori ere.

Goizeko 8etan irtengo da lehen hirukotea San Martingo enparantzatik, eta honoko ibilaldi hau egiten du: San Martingo enparantza, Etxeberri, Amundarain, Lasarteko-lepoa, Koai, Intusti (hemen gosaria), Aitzio, Olata, Ustatxo, Garagartza, Kalkasenea, San Martingo enparantza. Beste hirukoteak, minututik minutura irtengo dira.

Ibilaldiaren iraunpena, gosaltzeko ordu-erdi bat delarik, lau ordu terdi da gutti gora-behera.

Izenak ematea, irtetzekoan egiten da. Eta esan dezadan amaitzeko, Ordiziako Billafrankatik autobusa bat irtengo dela goizeko 7 1/2-etan eta Beasaindik eta Lazkanotik iraganen dela.

Ea ba euskal mendigoizaleok: hil honen 27an zatozte denok Ataungo San Martinerak! Ez zarete seguruenak damutuko eta!

TRIKUARRIETA

# Aiatar Batzuekin Elkar - Hizketan

Aiako festak ere badatoz. Maiatzaren 31an ospatzen da Santa Isabel eguna. Hori dela eta, ilunabar batez, Aiara joan ginen bertako zaharren bat, gazteren bat eta apaizarekin hitzeginetako asmoz.

Zenbait galdera egin genien, eta baita besteak erantzun ere. Z. Argiaren irakurlegoarentzat.

Lehenik, on Juan Lekuona erretoarengana joan ginen. Ta beste gabe, hona hemen galde-erantzun laburrak.

—Baduzue eliza bat. Emanen al zeniguke bere berri laburtoreen bat?

—Gaurko eliza hau, ez da lehenengo eraiki zena. Lehenengoa, orain "Toki Alai" taberna dagoen lekuan zegoen. Oraingoa berriz, 1914eko maiatzean inauguratu zen. Eraikitzen, bi urtez lehenago hasi ziren (1912. urtean, alegia). Bestalde, esan beharrekoa da, hauzoko lalean egin dela eliza hau. Herriak, lehenengo eliza finkaturik zegoen lurraren truke, 5000 pezata eman zuen oraingoa eraikitzeko, gutti gora-behera. Kanpotik ere, hartu ziren laguntzak, baina ez oso handiak.

—Jenderik joaten al da elizara?

—Bai, gehienak joaten dira.

—Euskara lantzeko gogorik nabari al da?

—Bai; haurren artean, esate baterako, "KILI-KILI" derizten hamalau kuadrono banatzen eta betetzen dira. Eskolan zebiltzan umeentzako, alfabetatzeko ikastaro bat ere eratu zen. Larrien artean berriz, ni etorrietz gero bi ikastaro eratu ziren: alfabetatzekoak, noski!

—Euskal irakurlegoa?

—Urria. Badira Z. Argiaren zenbait harpidetun. Baita Gero editorialeko beste zenbait ere. Anaitasunaren bat edo beste ere bai, nahiz ta duela guttiarte gehiago egon.

Ta beste gabe, erretorearekin, elkar-hizketa bukatu dugu. Eta ondoren, hirurogei urteko Patxi Agirrearengana jo dugu. Berak, humoretsu eta ongi hartu gaitu bere Etxeberri baserrian.

—Arren, Patxi, kontatuko al zenikidade Aiako ohitura zahar batzue?

—Bai gizona bai, kontatuko dizkituz. Orain mementuan asko gogortzea ez da hain errez, baina... Lehen, festak, San Martindik gurutzera ekarriaz egiten zen prozesioarekin hasten ziren. Prozesioa irixterakoan, "altxafuegoak" botatzen ziren, ekizak (kanpaiak) jo; eta izugarriko alaitasuna sortzen zitzaigun. San Martingo Miguel Maria zena izaten zen txistulari. Gu berriz, etxean genituen jantzi hoherenak jantzita joaten ginen elizara.

Ohitura hori, ordea, duela hemezortzi bat urtetatik etorri zen hozten edo moteltzen (indarra-galtzen). Nik uste dut, prozesio hura indarra galtzen joatearen arrazoi bat, egin zen bide berria dela. Gero, duela bosten bat urte gutti gora-behera moztu zen.

—Ederki, Patxi. Ta beste ohituraren bat esanen al zeniguke?

—Ba... Lehen, festetan, herriko alkatea hemen zegoelarik, "dantzak" egiten zen. Hauzoko gazteak izaten ginen dantzari. Aurreskua dantzatzaren zutenetan lehenengo zegoenari alkateak eramaten zion neskata bat. Eta gertakizun horrek, izugarriko alaitasun bat sorrarazten zuen. Gaurregun ordea, ohitura horiek galdu egin dira, tamalez.

—Geroztik, ohitura bazterteak, pentsakera aldateak, eta beste aldaketa asko izan da Euskal Herrian. Baita Aia hauzoko hontan ere. Zer deritzazu?

—Ongi ez zait idurtzen, baina...! Zaharrei pena handia eman digu ohitura horiek bazterteak. Aiako hauzokari, nere ustez, aldaketa horiekin indar handi bat kendu zaio.

—Aian, dantza-askatua egiten, onak omen zintzen. Geroztik ordea, guttiuz doaz era hortan dantzan dihardutenak. Zergatik idurtzen zaitzu?

—Bai, lehen Aian, baziren dantza-askatuan ibiltzen zirenak, onak gainera! Ibili, denok ibiltzen ginen. Gaur ordea, zeuk esan duzun bezala, ez. Eta ene ustez, aldaketa honen (lehen aipatutakoaren: dela ohitura bazterte, eta abar) fruitua da hori.

—Eta bukatzeko, azken galdera: bidezkoa al deritzazu hori?

—Ez, ez; ez zait bidezkoa idurtzen. Euskal-kutsu handikoa da dantza-askatu kontu hori, eta gainera Aian zerikus handia eduki duena. Zeren eta alaitasuneko indar handi bat eman izan dio. Eta Aiari indar hori kentzea ez deritzat ongi, ezta ondo-erdi ere.

Eta honenbestez, Patxiarekin egin genduen solasaldia. Gure erantzule prestua, afaltzen geratu zen, eta gu, gazte batengana jo genduen. Jon Agirre gaztearengana, hain zuzen ere. Hemenetzi urtetako mutit hau, han aurkitu genduen bere Arbilleta baserriko sukaldean. Erantzuteko prest hura ere.

—Hik gazte horrek, Aian bizitzeari zer sentidu ikusten diok?

—Ba, sentidua asko. Alde batetik, neroni jaiotako hauzoko delako; bestaldetik, berriz, gazteen artean giro berezi bat dakusadalako.

—Hemen Aian, gazteok zelaz joaten duzue?

—Igandetan mendira irteera batzue egiten ditugu; zenbait euskal jaialdi eratu; uda garaian hitzaldi batzue; euskal alfabetatzeko ikastaroren bat edo beste noizpehinka. Eta abar. Gutako beste gazte batzue, berriz, bertsolaritzan dihardute. Bestalde, gazteok nahiko kezkatu agertzen gara euskal gaietaz, eta noizpehinka egiten ditugu zenbait bilera, eta abar.


—Ta bukatzeko: zer etorkizun dakusak Aian?

—Etorkizun exkaxa, egia esan. Halere, gazte-jendea euskaltzaleatasunari asko atxikirik dago, eta zerbait ona itxaro dut hortik. Badira baserri handi ta ongi moldaturiko batzue, baina orohar, baserriak ez dira handiak eta bizibide bat ateratzeko haina ez dute ematen. Umeengan berriz, alaitasuna nabari dut eta euskal giro batetan itsatsita daudela dakusat. Eta horriengan, etorkizun nahiko aberatsa ikusten dut. Kirol aldetik, exkax ikusten dut Aia: pilota lekurik ez, eta beste erarik ere ez kirolzaleatasuna sortu eta lantzeko.

Eta honenbestez, Jon Agirrerekin izan dugun elkar-hizketa laburra. Ta guk, geure eskerrak beroenak ematen dizkiegu erantzule guztiei. Zahar, gazte, apaiz, era askotako jendearen eritziak agertu nahi izan ditugu. Aiari buruzkoak, noski!

Aiatar guttiel, eta festa horietara inurutzaren diren guttiel, jai alai batzue opa dizkiel.

TRIKUARRIETA



## AIAKO FESTEN EGITARRAUA

Asteazkena, maiatzak 30

Santa Isabel eta festa bezpera bezala:  
—Gauko 9etan: musika saioa hauzoko enparantzan.

Osteguna, maiatzak 31  
(Santa Isabel eguna)

—Goizeko 11tan: Meza Nagusia.  
—12tan: Haurren marrazki txapelketa (Aia mailan).  
—12 1/2etan: «Marin anaiak» Nafarroako musikariaren saioa.  
—Arratsaldeko 6 1/2etan: Ataungo Aiako «TOKAKO II garren TXAPELKETA».  
—8etan: «Marin Anaiak» goizalderarte.

Ostirala, ekainak 1  
(Haurren eguna)

11etan: Meza Nagusia.  
12etan: Haurren jolasak (txokolate jatea, eta abar).  
12 1/2etan: «Marin Anaiak» musikariaren ekinaldia.  
6 1/2etan: Haurren jolasak (koski apustu, eta abar).  
8etan: «Marin Anaiak» musikariaren goizalderarte.

Larunbata, ekainak 2

Gauko 9etan: Aiako gazteen sendiarateko afaria.  
Gauko 11etan: Zumarragako Trikitixaren saioa goizalderarte.  
Ilgandea, ekainak 3

(Euskal Jaia)

Goizeko 11etan: HERRI MEZA.  
12 1/2etan: «GOIERRI» dantza taldearen saioa.  
1 1/2etan: Zumarragako Trikitixaren ekinaldia.  
7etan: Zumarragako Trikitixa goizalderarte.

BAR - RESTAURANTE

## AURRERA

HAUXE DUZU ZURE JATETXEA

Urbietan, 12

Urrut.: 411528 - 412578

DONOSTIAN

## AIATE OPARIAK

GAI TA IRUDI POLITENAK

Victor Pradera, 2  
(Esquina Zubieta)

DONOSTIA

Festen Komisio-Eratzailea

# BEASAIN GAZTEEN BILTZARRA

## AGURRA

Beste behin ere, heldu zaizkigu «Loinatzak». Azken hitz honekin deitu ohi baitiegu Martin Loinaz santuaren omenez ospatzen ditugun Jai Nagusiei. Ikus ahal izanen duzuenek, ez da zerikusirik faltarik izanen. Denetik ageri da egitarauan.

Lerro hauen bidez, neure eta Beasaingo euskaldun guztien agurra bidali nahi dizuet Zeruko Argiaren irakurleoi. Jaietara etortzen zaretenok, ongi igaro ditzazuela eta arrazoi bategatik edo besteagatik agertzerik ez duzenok, ongi izan zaitezela. Zer esanik ez, orain arte gure artean izan arren, orain gurekin ospatzerik ez dutenei buruz; laister ospa ahal izateko zoria izan dezatela. Agur bada eta ongi etorri Beasaina.

MURUMENDI

### Kontu emen! Euki gogoan!

Adiskide ta etxekojaunok!  
Zuen enmasteentzako esku-erakutsirik onnea. Zuen sukalderako apaingarri  
Eltze azkarra. Asadora-Freidora RADAR. Erre ta prejitzeko aukerakoa SUPERCACEROLA A PRESION «RADAR»  
Juegos Espátulas y juego Cubierto «RADAR»  
LANTEGIA - INDUSTRIAS RADAR ESKORIATZA (Gipuzkoa)

### TRANSPORTES

## azkar

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK  
Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.  
Donosti'tik egunero:  
Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alicante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.  
Astean iru aldiz:  
Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.  
Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA  
Telefonoak: 450313 eta 459723  
Aptde. 1381  
Aptde. 1381

### ERAMAN - EKARRIRAKO AGENCIA

### Transportes A L E

### EUSKAL IRRATSAIOAK ERRI GUZTIRAKO

Telefonoak: 421969 - 427726

Argitaletxea, 8 - DONOSTIA

### ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopetia

Gataria 10-Urrut. 417751-Etxekoa. 422700 - DONOSTIA

Azkenaldi honetako zenbait ospakizun eta Euskal alorrekoak batipat, Gazteen Biltzarraren ardurapean egin direnez, egokia iruditu zait alegia Herriko Jai Nagusietan Zeruko Argiak eskaintzen dizkigun orrialde hauetan, bere berri ematea. Horretarako, Gazteen Biltzarrak duen Batzorde nagusiko batengana jo dut galdezka, beren ekintzen berri ahalik eta zuzenen jakitearren noski.

—Oso oker ez baniagok, hirugarren aldiz antolatuko dik Gazteen Biltzarrak Herriko Jai Nagusien zati handi bat. Zer egin da aurreko bi urte horietan barrena?

—Herriko Jai Nagusietan, Jakintza Aste bana ospatu duk. Hitzaldi, antzerki, jaialdi, bertso-jaialdi, liburu eta disken azoka, eta abar... Dantzari Biltzar handi batez bukatuaz izan dituk ekintza eta ospakizunik nagusienak. Horretatik at, haurren egunean ere esku hartuak gaituk, jolasak, aurrerua eta abar indartu eta bultzatu nahiez.

—Zenbat denboran diharduzue lanean jai hau antolatzeko?

—Hiru bat hilabetetan gutxi gorabehera.

—Lehen esan duenez, Jaien artean, Jakintza Astea zetorrek noski. Zer lortu nahi duzue bere bidez?

—Herriko Jai eta ospakizun guztiak apurka-apurka euskal giroan sartzea da helburua.

—Eta aurtengo Jakintza Aste honetarako, ba al da ezer berririk lehenaz gain?

—Bai. «Usurbe» eleberri edo nobela laburraren sariketa hor duk. Bestalde, bertsolarien jarduna, ez duk «txapelketa» izango aurtan, euskal kirolen aurkezletza baizik. Jaialdiak berriz, bi izanen dituk. Bata Goierriko artistek osatua, hots, Goierri dantza-taldeak, eta

Enbor eta Gara taldeek. Bestea, Ondarroako Kresala taldeak duen paregabeko MARINELAK aurkeztuaz.

—Honetatik at, zer egin du Beasainen Gazteen Biltzarrak?

—Honetatik at, Gabonetako ohi-turari txertu berri bat eman dio. Euskal antzinateko bizierak agertuaz eta bide batez, jendearen esku hartzea ugalduz.

—Nolaz sortu huen asmo guzti hauen muina?

—Herriko jaiak zuten arrozketuak ikusirik, geure kutsuko jaiak ospatzeko garaia zela ikusi zian gazte sail batek eta bilduaz-bilduaz honetarako heldu gaituk.

—Zer moduzko harrera izan dik jendearen aldetik?

—Oraindano oso ona. Zenbait ospakizunetan behintzat, jendea erruz bildu ohi duk. Beste zenbaitetan aldiz, ez hainbeste oraindik.

—Euskal Jakintza edo Kultura alorrean, zeri zioz herriak jarraitzen guttien?

—Sail batzuri erantzun arren, jende multzoari begira, hitzaldi, antzerki, bertsolaritza eta kidekoretan nabari duk hutsunerik handiena. Ez duk harritzekoa Beasainek bizitu duen giroa kontuan hartuz gero, baina apurka bederik, hau ere onduko delakoan gaudek.

Nolanahi ere, jendearen sena asko piztu da azken urte hauetan zehar eta hori, beste gauza batzuen artean, aipaturiko antolaketari horiei zor zaie noski. Hala ere, garaia da noski jendea gauza sakonei heltzen has dadin.

—Jende berririk (lehen esku hartu gabeak) itsasten al zaiok lan hauei, ala, beti batzuk zebiltzek?

—Hasera eman genionok nahiko gazte izanik, berritze handirik ez duk izan. Hala ere, 17-18 urteko gazte zenbait ikusten duk itsasten. Hortik gorakorik ordea ez duk azaltzen berririk.

—Diru laguntzaz nahiz beste laguntza mota batzuek, zer moduz zabilzate?

—Diruz, denon laguntzarekin osatu ohi gaituk eta aurtan ere horrela itxaron diagu. Aurtan 325.000 pesetatik gorako aurre-iritzi edo presupuestoa zedukagu. Udaletxeak berak, urteoro lagundu ziguk oinarriko laguntza bat eskainiaz eta aurtan ere 140.000 peseta agindu ziguk. Hortik aurrerakoak. Aurrezki Kutxa Munizipalak (40.000 peseta aurtan arte) beste zenbait diru-etxek, lantegi batzuk eta herritarrak nahiz jaietara datorkeenak orain arte bezala osatuko duten itxaropen osoa diagu. Dirutik at ere ordea, badizkiagu aipatu beharreko laguntzak. Hala nola Dantzarien Biltzar egunean elkarrekin eskaini ohi duten prestamena bazkariak antolatzeko eta zeregin honetan kaleko giroaz ahazturik diharduten herritarrak, nahiz alde batetan edo bestean zerbaitetan diharduen oro.

—Zer asmo dituzue aurrerantzarako?

—Lana Herriko Jaietarako bakarrik egin beharrean, urte guztian zehar batzorde bakoitza bere alorrean saiatzea duk helburua. Urtean zehar dugun bizitza, hots, egunorokoa, geure eta geure Herriaren bizitza izan dadin.


—Beajondeizuela eta aurtan ere aurreko bi urtetan bezala dena burutzeko zoria izan dezazuela. Eta bukatzeko, azkeneko galdera:

—Zer eskatuko zeniekete Zeruko Argiaren irakurleoi?

—Beasaina etor daitezela jaietan dibertitzera eta antolatzaileoi (nahiz eta akatsak izan) beren laguntza eskainiaz, Euskalerriri laguntzen diotela kontura daitezela.

Hala bedi bada eta guztia itxaro duzuen eta dugun eran gerta dadila.

MURUMENDI



# YANY

SUKALDEKO MUEBLEAK  
EDERRAK BEZAIN EGOKIAK

FELIX ETXABE, S. L.

Urrutizkiña: 891754

ZALDIBIA (Guip.)

**BEASAIN****Uribe - Etxebarria**

LIBURUTEGIA TA OFIZINATARAKOAK  
IRARKOLA - INDUSTRIA KARTOIGINTZA  
Urrutizkiñak: Lantegikoa 89 10 10  
Etxekoa 89 12 85

— BEASAIN —

**MIRENTXU**

LIBURUTEGIA  
TEXTO LIBURUAK  
IKASTOLETAKO GAIK  
OFIZINETAKOAK  
ESKU - ERAKUTSITARAKOAK

Kale Nagusia, 1 Urrutizkiña: 88 14 57

— BEASAIN —

**Azpeitia Anaiak, S. A.**

MAKINAK LAN-TRESNAK  
MONORAIL «AZPEITI»REN EGILLEAK  
GARABI - ZUBI TA TXIRRINTOLTZA, TA ABAR

Urrutizkiñak: 89 17 65 ta 89 11 71

— BEASAIN —

**Goenaga Gestoriak**

Ian auker artzen ditu: pasaporteak, matrikulatzeak, jabe-aldaketak,  
agiri mota guziak, berrazterpenak, adierazpenka, baimenak, baiturak,  
gizarte-aseguruak, zerga-arazoak...

Kale Nagusia, 2 Urrutizkiña: 89 16 23

— BEASAIN —

**EZKIA GA**

IRARKOLA

Nafarroako Ibildea, 15 Urrutizkiña: 89 10 67

— BEASAIN —

**DORITA MODAK - PHILDAR**

Lehen gaiako illeen aukera aundiak  
Neurrira egindako jerseyak - Eungintzak

Nagusia, 1 - Behêa Urrutizkiña: 88 10 12

— BEASAIN —

**Y A Ñ E Z**

RELOJERIA — JOYERIA

Nagusia, 28 Urrutizkiña: 89 10 49

— BEASAIN —

**« T U R S A »**

Automobilentzat argi-indarra

Naparroako Etorbidea, 35 Urrut.: 891072 - 891339

— BEASAIN —

**T O M A X I**

EMAKUMEEN ILLE-APAINKETA  
(Tomaxi Sarriegi)

Esteban Lasa, 4-pral. Urrutizkiña: 89 15 89

— BEASAIN —

**Gorrotxegi'tar LUKAS**

OPIL GOZOAK — IZOZKINDEGIA

Kale Nagusia, 18 Urrutizkiña: 89 16 65

— BEASAIN —

**Karmele  
Aranburu**

ILLE-APAINKETA

Illea edertu ta zaitzeko era  
bereziak

Kale Nagusian  
Urrutizkiña: 89 10 61

— BEASAIN —

**Agirrezabalaga****Anaiak**

Karrozeritza

Avda. del Centenario  
Urrutizkiñak: 89 16 08  
89 16 95

— BEASAIN —

**NEKANE**

Andreentzako Ille-Apainketa

Avda. de Navarra, 33  
Urrutizkiña: 89 13 19

— BEASAIN —

bazkari onaren zanpagarria  
eta txarraren estalgarria

**LA CASA  
DEL CAFE**

Juan Iriondo

San Marzial, 19 - Urrut. 413801  
Donostia

**EGOKI ERREKIAK**

Jamón asado - Bakalao al pil-pil  
Txuletak, Arkumeak eta abar...

San Ignacio, 15

Urrutizkiña: 89 14 37

**negeruela**

ERLOJERI TA BITXITEGIA  
EGUNEAN EGITEKO GRABA-LANAK

S. Ignazio, 5

Urrutizkiña: 88 17 30

— BEASAIN —

**Cristy**

Korseteria eta umeentzako salgaiak

Kale Nagusian, 26

Urrutizkiña: 89 18 56

○○○○○○○○

**E. Jauregi**

JOSKINDEGIA

Kale Nagusia, 19  
S. Inazio, 7

Urrutizkiña: 89 18 65

— BEASAIN —

**LAN - KUTXKA ERRIKOIA**

(Caja Laboral Popular)

Diru aurrerapen alkartasuna

Zer nai zerbizurako eta herriaren etorkizuna indartzeko

San Inazio kalean

Urrutizkiña: 89 18 17

— BEASAIN —

**amaya**

ERREDIZAK (Muebleak)

Aukeran aukerakoa. Era guztietako muebleak

San Inazio kalean 2 garrean

Urrutizkiña: 88 11 75

— BEASAIN —

**Banco de San Sebastian**

BANCO HISPANO AMERICANOAREKIN FEDERATUA

Etxe Nagusia: Españako Etorbidea, 19  
Etxe Ordekoak. Gran Via, 26  
Ortiz de Zarate, 7

Donostia  
Bilbao  
Gasteiz

Kale Nagusia, 12

Urrutizkiña: 89 17 63

— BEASAIN —

**Egoki Errekiak**

Txuletak, urdaiazpiko egosia, arkumeak, bakallua pil pilean

San Inazio, 15

Urrutizkiña: 89 17 63


— BEASAIN —

**MITXELENA**

ORDULARI ETA BITXITEGI  
Zatoz gugana anuntzio honekin  
eta KANARIAS-en baino merkeago  
erosiko duzu zure erlojua

Matxin Arzu, 1

ONDARRABI



Dantza taldeak kaleetan zehar, Dantzari Biltzar egunean

# BEASAINEN SORRERA

Aita Garmendia Otaolak dionez (G.B.), lehenengo gipuzkoar lege idatziak 1375 eta 1377koak dira. Hogei urte geroago, hots, 1395ean, Getariako San Salvador Elizako koruan, 60 legedun idatzi bat osatu zuen Anaidiaren Batzarrak (izen hau hartu zuen). Hau Fuero gisan 1397ko uztailaren 6an eman zen eta Gaztelako Enrike III garrenak eman zuen oniritzia. Beasainek ere, Fuero honetan esku hartzea nahi izan zuen eta beste zenbait «herri» ere gogo bereko izanik (Goierriin), 1399ko apirilaren 8an lortu zuten Fuero horretan sartzea.

Villafranca izenez ezagutuko zen «herriren» elkartea osatzeko, honoko herri hauek bildu ziren: Atauin, Beasain, Zaldibi, Gaintza, Isasondo, Legorreta, Altzaga, Arama, Ordizia eta Aleriako Alkatagokoak ez ziren Lazkanoko zenbait etxetakoak, hala nola: Maizaundi, bi Iz-tuetak, Ibarrolaburu, Intxaurren, bi Maiz-ek, bi Izagirrek eta Garmendiakoak. Dirudienek, Lazkao-mendi eta bere ingurukoak ziren, ze gaur ere, badira oraindik Lazkanon izen horiek dituzten baserriak eta etxeak.

Egun hartan Beasaingo ordezkari legez agertu zirenak hauek ditugu:

- Juradu:
- Erauskin-go Joan Azteiz
- Abarrizketa-ko Joan
- Abarrizketa-ko Pedro (aurrekoaren anaia)
- Txintxurreta-ko Joan (arotza eta aurrekoen hiloba)

- Muertzia-ko Joan Lopez
- Arana-ko Pedro
- Sagastigutia-ko Joan
- Sagastigutia-ko Otxea eta Migelez
- Zaldibia-ko Joan
- Ataun-go Toda andrea
- Beasain-go Joan Abad
- Ugartemendia-ko Joantzar
- Arana-ko Mari Santxoiz
- Artza-ko Martin
- Sagastigutia-ko Lopez Iñiguez
- Arrasko-ko Lope
- Aranburu-ko Martin
- Intziarte-ko Lope
- Garin-go Santxo
- Bereziartu-ko Martiko
- Joan Beltza (arotza)
- Txintxurreta-ko Garzea
- Iriondo-ko Joan
- Lazkaibar-ko Joan Perez

Hauek denak noski beasaindarrak ziren eta berorien abizen edo aPELLIDUAK gure egunotan ere, etxe izenak direlarik, zalantzarik ez da noski garai hartan horrela zirela esateko. Garbi dakusagu beraz, herriko abizen sail handi bat nondik datorkeen.

Baina esan dezagun baita ere ordea, 1399ko apirilaren 8az aurretik ere, bazela Beasain. Egun horretan ez zen sortu, egitura berri baten pean sartu baizik. Egitura berri hori, Ballarako zenbait «herri» eta etxek osaturiko «Villa franca» izeneko elkartea bat zen (erraztasun eta defentsa bat lortzearen) eta ez noski inoiz entzun izan dugun bezala, Beasain Villa-

franca-ren menpean egon zela. Hori astakeria eta gauzak gaizki ulertzea da. «Villa franca» elkartekoa zen Beasain eta Ordizia bera ere bai, baina «Villafranca» ez zen Ordiziako lurraldea bakarrik, lehen aipaturiko «herri» eta etxeek osatzen zutena baizik; funtsean Goierriko zati handi baten izena zen «Villafranca». Beraz «Villa franca» elkartea bat izan zen, ahalik eta banaka edo taldeka «herriak» beren buruen jabe eta erantzule bakar egonik, elkarteko «Villafranca»-tik irten ziren arte.

Beasain, 1615eko otsailaren 4ean irten zen «Villafranca»-tik, Gaztelako Felipe II garrenaren erregegoan. (Errege hau Beasaingo Ihar-tzan izan zen burdinola ikusten).

Nolanahi ere, «Villa franca» hori sortzerako, bazen Beasain, baina ez «herri» egituraz horniturik. Beharbada, bilkura horretan sartzeko lurralde mugatu bateko etxe sail batek hartu zuen izena izanena da Beasain. Ez dakigu, baina litekeena da. Dakiguna zera da: Gudugarretatik Ordiziara bitartean, bazela nortasunez bizitzeko gogoia zuen jendea eta jende horrek sortu bide zuela BEASAIN. Geroago, Gudugarreta, Salbatore, Arriaran, Garin, Astigarreta eta Matxinbenta itsatsiko zitzaizkion babes bila eta gaurko Beasainek duen lurraldea osatuko zuen, baina muina, orain herriaren bihotza den inguruan izan zuen noski.

MURUMENDI

# BEASAIN NERE HERRIARI

— 1 —

Lantegiz eta etxez beterik Oriaren ibarrean  
Autobide ta burnibideak  
Uzten dizuten lurrean  
Nekazaritza eta landolaz Ihardunikan lanean  
Euskaldun sena urria duzu  
HERRI gaurko egunean.

— 3 —

Duela hogeit bat urte hontan Hamaika jende bildurik Euskaltasuna zuk ere duzu la-ia dena galdurik Etxe ugari egin ondoren Jendea erakarririk Orain bertako semeontzat'e la ez duzu tokirik

— 2 —

Nekazaritza, merkatalgoa Ta burdinola bizkorak Behetik gora jaso zintuen Joan zen mende malkorak Ta oraingoan bultz egin dizu Industriaren gogorak Baina azkenik lantegiak'e Gerta zaizkizu satorrak.

— 4 —


Halere sortu zaigu berriro Galdua genduen hatsa Ikastola ta gau-eskolekin Bihurtu zaizu arnasa Lantoki egoki ta jatorrak Sortzea da lan bat gaitza Baina oraindik gizonik duzu Jarraitutzeko gorantza.

ANDONI SARRIEGI



Donosti'ko Erri-Etxe'ko Aurrerki Kutxa

EUSKAL IRRATI SAIOAK



Banen baneko azikai Ongarri ta abonoak Belar Zuloak Erosi edo berritzeko diru aurreratzea Baserri, lur-tresnak ta abai Torelaverri'ko Perira joan storriak

Baserriaren alde

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta nora jo jakin bear du baserriar burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERREENTERI

ESTABLECIMIENTOS FERRETERIA  
**ayestaran** BURNI - SALGAIK  
DONOSTIA Urbietak, 25

ELECTRODOMESTICOS RAILITE  
ETXERAKO ELEKTRO-LEGEZKO  
TRESNAK ZABALTXAILLEA  
Urbietak, 27 - leabel II, 2 Aldarazoa, 4

Urrutizkifak:  
44300 ta 420787



# DEPURACION DE AGUAS S. A.

Ur lanetan eta zereginetan berezia edangarri, lantegiko eta igeritako urak gertutzeko zikindutako urak garbitzeko.

Urrut. 32 37 60 - 31 00 19 - 32 37 01  
Gardoniz, 44

BILRAO

# ARTEAN (I)

Gizona berez artista dela askotan esan ohi da, "zergauza edertasun batean adierazteko gai bait da" B. Otaegiren hitzez.

Egin nahi duen hura edertasunez adieraztea dela esango genduke artista agertzea. Gizonak gizon danetik beti du zerbait agertu nahia, hor hizkuntza lekuko. Baina ez gara danok edertasunez adierazteko gai.

Artea ere hizkuntza bat dela esan genezake, entzumenez eta ikusmenez geuregana genezakeena. Ez da harritzekoa beraz jendeak, "zer esan nahi du?" galdetzea. Esanahi hori hitzez eskatzea da aldresbekeria. Kuadro bat ez bait da belarriz ikusteko egina.

Lehen Historiaz ari garela ikusmenekoari buruz mintza gaitezke, baina ikus daitekeena hain gutti ezagutzen badugu are gutiago entzumenezkorena. Zer dakigu garai hartako musikaz? EZER EZ. Isturitzen xilbitu batzuk agertu zirela, besterik ez dakigu; hauen egitekoa xistularitza zenik ere ez.

Artistak ez du beti jendeari erakusteko egiten bere lana, artelanak badu berekiko adierazgarritasun bat; zerbait pentsatzen dugun guztietan jendeari zerbait esateko ez da izaten, baina hala guztiz ere hitzen bidez pentsatzen dugu. Gauza artistak ere.

Beraz artistak bere barrena agertzen digu; bildurra karraxi batez adieraz daiteke, artelan batez adieraz daitekeen bezala.

Barrena ordea sinboloen bidez adierazten dugu ia beti. Gure sinismena, usteak, kezak, den guzia sinbolotan agertzeko beharra dugu gizonok. Hamaika sinbolo badugu gure gizartean, pozarena, burrukarena, herriarena, eta zer da bada hizkuntza bera ere?

Sinboloak indar bat hartzen du, adierazi nahi duen harena. Azaleko adibidea bada ere, norik ez ditu Munich-ko Olinpo-jolasetan bere Nazio-musika entzutean deportistak negarrez ikusi?

Sinboloak norberarenak, personalak edo gizartekoak izan daitezke. Burrukan ari diren bi indar.

Gaurko artelan baten aurrean gure gizarteko sinbologia ezagutuaz gaude eta artistarena aurkitu nahi izaten dugu.

Lehenago ari garenean, ordea, ez dugu gizarte hura ezagutzen. Sakoneko gauzez lau huskeria besterik ez dakigu. Hor gure kakoa. Nola bereizi artistaren sinbologia eta gizarterena, estadistikaz ez bada? Asko ta asko ikusiaz alegia.

Haien artelanen aurrean ia hutsetik hasi beharrean gara, hutsetik ez bada ere gure sinbolo mundutik. Hortik urrutiago ez ote goaz?

Dena dela, bere lanak hor ditugu, haietaz dugun berri apurra ere bai, gizon gara haiek bezala; ikus, entzun eta ixo, beste harek ziona.

Bi lantxo eskaini nahi genizkizuke. Lehenengoan zer artelan utzi diguten adierazten saikuko gara, eta bigarrenean asko ikusi eta pentsatu dutenek diotena.

## LEHEN ARTEA

Artelanak harat-hunat erabili daitezkeenak edo nahita-ez leku batetan egon behar dutenak izan litezke; egun, Oteizaren zenbait eskultura tiki, lehenengoetarik litzake, erabilkorak alegia, eta Gazteizko katedrala bigarrenetarik.

Lehenagoetan harri tikiak eta hezurretan egindakoak lirake era-

bilkorrak, eta harzulo horretan egindako margazki eta marrazkiak erabil ezinezkoak.

## ARTE ERABILKORRA

(Lan honetan dituzun guziak horrelakoak dira).

Era honetako lehenak "Venus" dira, Aurignak aldiko eskulturak. Emakume irudiak dira. Eme bereiztasunak oso nabarmen agertzen dituzte, emetasun sinbolo direla dirudi. Gehienbat marfilean eginak dira.

Ihizien gorputzak ere moldatzen zituzten, batez ere buru aldeak. (Ihizi buru ugari agertu da Isturitzko harzuloan, benetan harrigarri). Eskultura hauek hezur, adar eta harrietan egiten zituzten. Buztinezko bi bison ere badira, Audoubert-en.

Ugarien direnak ez dira eskulturak, marrazkiak baino. Batez ere hezurretan. Asko dira harritan eginak ere.

Hezurrezko lanabes gutti dateke era bateko edo beste marrazkirik ez duenik. Batzuk ihizienak, besteak geometria gisakoez dotoretuak.

Lanabes ez direnetan ere ugari ditugu. Duela gutti (1970) alkatraz hegaziaren hezur bat aurkitu zen, dana marraztua. Ignacio Barandiaranek dioenez Peninsulako ederrinetakoa dugu. Oartzungo Torre harzuloan agertu zen.

## HARKAITZETAKO ARTEA

Altamirakoak izan ziren lehenen aurkituak, baina horrelako artelanei ez zitzaizten sinismen handirik eman. Horrenbeste urteko margazkirik edo pinturarik ez zuten uste izan zitekeenik ere. Are guttiago halako edertasunarekin. Ez tabaida gogorak izan ziren; 1900 urteaz geroztik jatorizat jo ziren.

Harzulo hormak leku zabal eta egokiak dira, artistaren nahierara zuena. Hormak askotan lakatzak izanik leundu egiten zituzten. Harbere lanak egiteko; hezurretan ez kaitzen berezko itxuran ihizi baten zati bat edo beste ikusi ohi zuten eta beraiek bukaera eman. Honelako asko daude Ekain harzuloan: arrain bat, bison bi, zaldi bat edobeste, tab.

Ihiziak egiten zituzten batipat, belarjaleak zehazkiago esate arren. Zergatik ez bada haragijaleak? Hauek ere egiten zituzten baina askoz guttiago: Ekainen bi hartz, Santimamiñe, Venta Laperra eta Isturitzen beste bana, eta kitto. Ehizatu ere ez zituzten egiten, harzuloetako hezurrek hori erakusten dute behintzat.

Ihizi batzuk oso handiak egiten zituzten eta beraien barnean beste ihiziak egiten. Altxerrin (Orio) elur-orein baten barnean azeri eder bat dago marraztua.


Irudiek, maiz, mantxak edo leuroak dituzte bere gorputzaren erdian. Batzuk gezi edo fletxak ere bai. Ekaingo zaldi batek argi ta garbi daduka.

## NOIZKOAK DIRA?

Saillean hartuaz Goi-Paleolitos harokoak direla esan genezake, baina urte gehiegi hartzen ditugu batera eta orduan sortzen dira burruhausteak, ez bait ditugu mailatan aurkitzen, elkarren ondoan baino.

Erabili eta erabiltzen diren bi-deak:

1.—Erabilkorak direnak lurmailatan azaltzen dira eta beraien adina erraz jakin daiteke. Harkai-



tzetan aurkitzen direnak eta hauen antzik badute, hauen arabera noizkotasunak daitezke harkaitzetakoak ere.

2.—Isturitzen gertatu zen bezala lurmaila batek estaliko balitu, estaltzen legokeen lurmaila hura baino zaharragoak lirake irudiak. Guttiatan gertatzen den gauza da.

3.—Estetika eta estiluzio arrakala abstrazio handiagoa eskatzen zoiak ere asko erabili dira irudi baten zahartasuna neurtzeko. Hodu irudi bat gutiago eskatzen duen hura baino berriago litzake.

E.b. Ekainen dagoen orein baten gorputza eta burua saihetsetik begiratuta bezala dago, ihizi bat honela adierazten bait da hobekien eta errazen. Adarrak ordea saiheska egitea zailago edo itsusiago gertatzen-ta, aurrez begiratuta balende bezala egin zituen.


4.—Paleontologiarekin bat eginda dagoen beste bide bati ere heldu diote beste batzuek. Honela adieraziko genduke: Ihizi irudietan ihizi baten eta besteren ugartasun berbera lurmaila bateko hezurrek adieraziko balute lurmaila horren garaikoak lirake harkaitzetakoak ere.

Bide okerra noski, eta gure artean daukagun harzulo batetan gertatutakoaz erraz frogatu ditezkeena: Ekainen egiten ari diren lanetan agertu diren hezurak ihizi hauenak dira; ugariak orein eta basakerranak, gero bisonenak eta azkenik zaldi hezur bat; Madeleine lurmailan noski, bertako irudiak garai hortakotzat bait dauzkate.



Irudietan agertzen diren ihiziak hauek dira: Ugariak zaldiak (33)



Isturitzen agertutako hezurdotoretu bat, geometria gisakoekin



Isturitzko harri batetan marrezutako zaldi bat



Torreko harzuloan negazti baten kanpurrean egindako marrazkiak.